

1995eko martxoak 10


268. zenb.

PRESS



ARRASATE

DEUNORO OTTARO (UIDAI ETXEA)
HERRIKO PLAZA
ARRASATE
0 9



Folk
musikaz
blai

RKUZ

altzariak

altzariak • diseinua • apainketa

Araba Etorbidea, 20
Tfnoa. / Faxa: 79 23 51


sukalde integrala

FAGOR



Mitarte, 3

Tfnoa. / Faxa: 77 04 55



elektragailuak

telebista • bideoa • soinua

expert



banatzaile ofiziala

Asuncion, 1 Tfnoa. / Faxa: 77 10 97



Aretxabaleta

“Ikusi mendizaleak”

Niretako zapatu goizeko bostak dira. Ostarkutik sartu-urtenean dabiltzatendako, ostera, barikuko akabera-ko orduak. Haiek etxera, ni Pirineo aldera, Telerara. Autoan sartu eta, ohizko “aupa” eta lelokerien ondoren, “hi kontuz ibili biheko gaittuk, eh!, Teleran bi juen dittuk asteburuen”, “bai, amak ez justek besteik esan”.

Bi Teleran, beste bat han, lehenago Santutxuko sei gazte Respomusotik Sallenterako bidean... Zer demontre gertatzen da baina? Denetako erantzunak Sallenterako bidean... Zer demontre gertatzen da baina? Denetako erantzunak daude: “zorte txarra, besterik ez”, “gero eta jende gehiago dabil eta”, “arreta gutxi”, “dabilenari pasetan jako”, “izan ere, zertarako joan halako lekuetara?”...

Denetarik izango da baina badirudi hiru osagai nagusitzen direla: batetik, egia da gero eta gazte gehiago dabilela goi mendietan; bestetik zorte kontua ere bada; eta, azkenik, badirudi haiz eskaladan ondo mugitzen den jendeak bere buruarekiko hartzen duen konfiantzak ere baduela eraginik. Guzti honen aurrean zer? Gauza berri handirik ez. Beste kirol batzutan eta pertsonaren jardura askotan legez, prestakuntza, nork bere burua neurtzea eta zuhertasuna dira kontuan edukiko beharrekoak. Guzti hori norberegantzeko modua: hezkuntza.

Baina bizi garen munduan bizi gara eta, ezin ukatu, haren lehiakortasunak aspaldi kutsatu zituela mendi magalak. 6b, 7a, 7b... lortu beharrak, edo honek baino zortzimilako gehiago egiteak, edo hark baino gaitzago egin beharrak, bere ordaina daukate: batez ere, gazteak lehiakortasun zoro horretara bul-

tzatzea eta mendia lehiakortasun gunea bihurtzea. Zenbait girotan hori oso sustraitua dago. Bizitzako edozein arlotan moduan, nork bere buruarekiko duen lehia -superazio izpiritua- edo hori -zilegi eta ona izan liteke, gutxienez norberak aukeratzeko kontua da. Gailurraren santifikazioa, atzera egitea porrot moduan hartzea, edo eguraldia medio asteburuan “ezer” egin barik bueltatzearen pentsamoldeak baztertu egin behar dira. Udalaitz, Degurixa, Anboto eta Muru hor daude. Baina Aneto, Vignemale, Cervino, Huasearan, Aconcagua eta K2 ere bai. Istripuak ekidin eta “gure herria maitatzeko bidean” norbaitzuek bertako mendietan ibiltzearen apologia egin dute, 2.500 metrotik gorako mendien tontorrak ezabatu guran edo. Nik ura beharrezko dut eta oso gustoakoa ere bai, baina patxaran apur bati edo noizbehinkako kanutotxoari ez diot muzin egiten. Aukeraren erabilera hezitu behar da, ez tontor mozketak.

Goi mendizaletasuna ulertzeko makintxo bat saio egiten dira. Hotza, arriskua, nekea eta antzerako fenomenoak -antza denez txarrak- aipatzen dira mendizalearen erraietan arakatu guran, “logikaren” erresuman kokatu guran. Bere izena gogoratzen ez dudana “elite”ko mendizale bati, mendietara zergatik igotzen zuen galdetu zioten: “Hor dau delako” erantzun zuen. Arrazoi du.

XABIER LETONA



Aritz Larrinaga

• ARRASATE PRESS •

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tfnoa: 77 05 65. Faxe: 77 09 40

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Maria Agirre. **Kazetariak:** Itxaro Zubillaga, Maider Egües. **Hizkuntz arduraduna:** Arantza Ozaeta. **Publizitatea:** Jaxone Mendizabal eta Alberto Garro (77 08 15). **Administrazioa:** Ikerne Altube eta Itxaso Errasti (Tfnoa: 77 08 15). **Maketazioa:** Txos Azurmendi. **Kolaboratzaileak:** Arantzazu Loidi, Mikel Irizar, Blanca Jauregi, Esther Balanzategi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Unai Loidi, Mikel Olabe, Nekane San Miguel, Karmele Perez, Sorginak, Kopti, Danel Goikolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondoa, Haritz Larrinaga, Cesar Cimiano, Iker Letona, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta. ©ARRASATE PRESS. Tirada: 5.500. **Lege-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azaleko argazkia: “La cuisine” taldea

**GATZAGAN,
ERDI ERDIAN...**

**ZUHAITZ
jatetxea**




Memesa
79 42 22



Aldizkari honek Arrasateko Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Euzko Jaurritako Kultura eta Turismo Sailaren laguntza jaso du

Euskaraz eta Kitto?

Hamazortzi urte hauetan, San Andres Herri Eskolan Euskara eta Euskaraz ez ezik, beste helburu bat ere izan dugu argi gure artean, *aprendizaia esanguratsua*. Hau da, eskolako aprendizai buruzterakoan behar beharrezkoa da ikaslearen aktibitate mental kostrutiboa. Esparru honetan, irakaslearen papera ez da informazio iturri bakarra izango balitz bezala; haurrak irakaslearekin eta aurrean dituen material eta egoerekin interakzioan, eraikuntza pertsonal hau burutu dezan kondizio egokiak sortzea baizik. Horrela du zentzua aprendizai esanguratsua, aprendizai memoristikoa eta erre pikakorren orde, benetan haurrak edukin berri bat ikastean, zentzua edo esanahia emateko denean. Beste era bateara esanda, ikasleak dakienaren eta ikasiko duenaren artean lotura gehien lortu behar da: esanahi berri hauek aurretik lortutako ezagupenak aberastu egiten dituzte eta egoera berrietan aplikatzen uzten diote. Errealitatea ezagutzen, interpretatzen, erabiltzen eta baloratzen uzten duen aprendizai bultzatzen dugu gure eskolan. Aprendizai esanguratsua haurraren, aurreko aprendizai abiapututz hartuz, eta irakaslearen bitarteko funtzioaren bidez, bere ezagutza eskemak aldarazten ditu, ikasitakoaren funtzionalitatea aurkituz bere memorian gordeaz. Irakasleak, ikaste/irakastearen egoerez baliatuz, ikaslearen kontres-

na sortarazi behar du, haurrak alde aurretik daukan informazio aldaratuz gero, eza gutzen duenarekiko informazio ezberdina edo dimentsio berriak eskeintzen dizkiolako. Gatazka talde mailan planteatzen denean, askotan aberatsagoa da, ikuspuntu desberdinen koordinazio eskatzen bait du, eta parekoaren arteko interakzioa ahalbideratzen duelako, beti askatasun eta espontaneitate handiagorekin. (Jarraituko du).

XABIER ARRUTI

Martxoak 8: gizonen txanda heldu da

Euskadiko Mugimendu feminista sortu zenetik ia 20 urte igaro dira eta urte hauetan zehar emakumeendako gauza asko aldatu direla ukaezina da: emakume askok orain dela gutxi arte gizonen bakarrik okupatzen zuten esparru publikora iritsi ahal izan dugu; soldatapeko lana eskuhartu dugu... Gainera, krisi ekonomikoak, batez ere industri sektorea astindu duenez, portzentualki eragin handiagoa izan du gizonengan emakumeengan baino, zeintzuk zerbitzuetan ari diren, batez ere. Hala ere, ez dutesan nahi gizon eta emakumeen lanerako aukerak parekoak direnik, hasierako abiapuntua askozaz okerragoa delako emakumeentzat.

Atzean utzi ditugu Unibertsitatean ikasi nahi zuen lehendabiziko emakumeak gizon mozorroto behar izan zuen garai haiek; gaur, Con-

cepción Arenalek burua jaso ko balu, harriduraz ikusiko luke unibertsitarien kopuru erdia neskek osatzen dutela.

Beno, ba berdintasunetik gertu gaude, dagoeneko... pentsa dezake edonork. Urteak igaro ahala helduko da berdintasun osoa; utz diezaiogun Historiari berba egiten eta itxaron. Hamar edo hogeit urte barru emakume guztiak izango dugu geure lanpostua; gaurko ikasleak arlo ezberdineko profesionalak izango dira eta... azkenik, Euskal Herriko zerua lila bihurtuko da.

Baina irudikatzen ari naitzen etorkizun hurbil horretan, nork zainduko ditu ikasle horien seme-alabak? Nork hartuko du neska hauen -edo ta euren bizilagunen- gurasoen ongizatearen ardura? Zein aukera egingo dute: lana utzi beharko dute? Eguneroko bizitzan atenditu behar dituzten bi esparruak (lanekoa, etxekoa) orekatzeko ahalegintan jarraitu beharko dute jasanezineko eskrizofrenia gainditu ezinda?

Eurak, gure belaunaldiko emakume askok bezala, ez dute ontzat emango bizilagunak etxeko lanetan esku bat botatzea, dagokien %50a jaso dezatela, baizik.

Bada garaia gizonek bere buruari seriozki galdie diezaioten zein den gaurko egoerarekiko duten erantzunkizuna. Zer egin beharko duten gizartean gertatzen den errolen banaketa gainditzeko bidean, honek etengabeko desabantailak dakartzalako emakumeentzat.

Guk ere duela hogeit urte

ez genekien zer eta nola egin behar genuen. Ordurarte inork ez zigun irakatsi hartu beharreko bidea, baina pixkanaka pixkanaka gure helburuak finkatzen joan ginen, gure izaerako zein aspektu ziren ematasun definizio konkretu baten eraginpean zeudenak eta nola eragotzen ziguten ausartagoak izaten, autonomoagoak, erabakikorrakoak, etab. Hogeit urteko ibilbide honetan akats asko izan ditugu, norbanakoak eta taldekoak; baina aldaketa pertsonalaren eta sozialaren bidea hartzean bete-betean asmatu genuen, hor ez genuen erratu. Garrantziko zerbait ikasi dugu: gai garestuak bizitza-proiektu propioa garatzeko, bakoitzaren erabakiak jarritako muga besterik ez duten proiektuak, hain zuzen ere. Hogeit urteko iharduera feministaren emaitza.

Oso argi daukagu lorpen ugari falta zaigula oraindik, eta, beraz, prest gaude orain arteko bidetik jarraitzeko. Baina, gizonen, zer egingo duzue bitartean? Gai honetan jokatzea tokatu zaizuen paperaz, zer diozue? Zuen gizontasunaren oinarriak aztertzeke garaia heldu zaizue, zeren eta zuen maskulinitasunak borro bezala jokatzen du gudan eta zikiratzaile eta mugatzaile bezala zuengan.

Erabaki bat hartu beharrean aurkitzen zarete: zein puntutaraino zaudete prest oraingo pribilegioak galtzeko eta giza harremanak berdintasun klabeetan gauzatzeko?

Merezi izango du, ez dut zalantzarik. Nola egin? Zuk, zuek erabaki.

ZUTIKEO EMAKUMEAK

TTUKUN

Fotokopiak
Enkuadernazioak
Koloretan fotokopiak
Planoen erreproduktzioa
Offseta

Ferrerias, 23 ARRASATE
Tfnoa: 79 46 62

• Txitxinpe •

Berezitasunak:
Kafea, ardoa, urdaitegia,
fruitu lehorrak

Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE Tfnoa: 79 67 76

“PAL”

burdindegia,
brikolage
eta tresneria

Uribarri etorbidea, 3,
Tfnoa: 79 31 99

GORKA

ILEAPAINDEGIA

SOLARIUMA

Ferrerias, 35 ARRASATE
Tfnoa: 77 13 78

Garraio publikoak erabiltzen dituzu?




Aitor Izquierdo
Ikaslea
(13 urte)

Gutxitan hartzen dut autobusa. Aretxabaletara eta joaten naizenean, festak direnean. Jaietara joateko autobus gehiago jarri beharko luketela uste dut.



Mertxe Zeziaga
Etxekoandrea
(65 urte)

Ez, ez naiz inora joaten eta. Noizean behin hartzen dut autobusa, Gasteiza joateko batez ere.



Harkaitz Astiria
Ikaslea
(14 urte)

Astero hartzen dut Legazpira joateko eta uste dut autobusa gehiago jarri beharko liratekela. Legazpira joateko, adibidez, autobus bakarra dago egun guztian zehar.



Milagros Rodriguez
Etxekoandrea
(51 urte)

Bai Eroskikoa hartzen dugu eta urbanoa ere bai Aretxabaletara joateko. Nahikoa autobus dagoela iruditzen zait.



Idoia Gonzalez
Ikaslea
(13 urte)

Ez, aitak autoa dudanez autoz joaten naiz.



Julian Santos
Langabetua
(40 urte)

Autoa daukat baina autobusa gehiago jarri beharko luketela pentsatzen dut. Donostia eta Gasteiza joateko autobusak badaude baina Bilbora joateko, berriz, oso gutxi.



Esther Gual
Ikaslea
(14 urte)


Ez sarri-sarri, kanpoan saskibaloia jokatu behar dugunean bakarrik hartzen dut autobusa. Donostia-ra joateko autobus gutxi dagoela iruditzen zait.



Silvestre Cabo
Langile (56 urte)

Oso gutxi, egia esateko batera ez. Autoa dut eta autoan ibiltzen naiz hara eta hona.

Elektroinjekzio
Zerbitzua



ARRASATE KONPONKETAK

Zaldispe kalea, 5 Tfnoa: 79 95 41
ARRASATE

ESLU

ileapaindegia

Tfnoa: 79 37 88
ARRASATE

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak
 Arrasateko Eskualde-Ospit.79 53 00
 Igalatorioa79 05 00
 Santa Agedako Ospitalea
 (gizonak)79 39 00
 (emakumeak)79 44 11
 Buru osasunerako zentrua79 90 11

Gurutze gorria
 Bergara76 55 76

DYA
 Antzuola76 62 91

Anbulatorioak
 Arrasate (Larrialdiak)79 13 57
 (Txanda hartzeko).....77 03 46
 77 07 21
 Oñati78 08 52
 Eskoriatza79 98 58
 Aretxabaleta79 74 58
 Aramaio(945) 45 51 16

Anbulantziak
 Gipuzkoako ambulantiak45 87 44

Udaltzaingoa
 Oñati78 04 11
 Bergara76 14 69
 Arrasate79 14 39
 Aretxabaleta79 10 52
 Eskoriatza79 03 22

Ertzaintza
 Arrasate79 71 99

Suhiltzaileak
 Udal taldea79 09 00
 Udal taldeko suhiltzaile burua .79 20 72
 Zubillagako Eskualde-Parkea .78 28 00

Matxurak
 Urak (udal zerbitzua)79 09 00
 Elektrizitatea (Iberduero)12 01 62
 Gasak900 40 05 23
 79 78 44
 79 76 78

Garraioak
 Taxiak79 12 22
 P.E.S.A.79 14 19

Hirugarren adinekoentzako zentruak
 Iturbide Egoitza79 72 11
 Abaroa jubilatuen egoitza79 81 57
Kontsumitzailearentzako informazioa
 Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteak79 87 77
 KIU-B-OMIC79 51 55
Monterongo liburutegia
 Monterron.....77 01 05

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala 10
 Egunez eta gauz: Puy. Bergara
 22'00ak arte: Amezua. Sta. Marina.
Larunbata 11
 Egunez eta gauz: Guallar. Bergara
 22'00ak arte: Ruiz. Maala.
Igandea 12
 Egunez eta gauz: Guallar. Bergara
 22'00ak arte: Morales. San Andres.
Astelehena 13
 Egunez eta gauz: Estella. Bergara
 22'00ak arte: Azkoaga. Ferrerías.
Asteartea 14
 Egunez eta gauz: Mozos. Bergara
 22'00ak arte: Español. Iturriotz.
Asteazkena 15
 Egunez eta gauz: Camacho. Bergara.
 22'00ak arte: Corcuera. Musakola.
Osteguna 16
 Egunez eta gauz: Irizar. Erguin.

10 OSTIRALA

ZINEA
 "Exquisitas ternuras" 7etan eta 10etan.

FOLK ASTEBURUA
 Sebero Altube plazan, arratsaldeko 8etan "The Hackney Ramblers" eta 9etan "La Cucina". Musakolako Kiroldegian, gaueko 10.30etan "Pe3ntanele", 11.30etan "Liberty cabé", 12.30etan "El bosque" eta 1.30etan "Dyster Band".

KONTZERTU-HITZALDIA
 Gaia: "Tronpa; denbora zehar egindako bilakaera teknikoa" Juan Manuel Gomez de Edeta katedradunaren eskutik, arratsaldeko 7etan, Arrasate Musikaleko areto nagusian. Arrasate Musikalek antolatuta

KONTZERTUA GAZTETXEAN
 "Señor No eta No Way" taldeen eskutik Gaztetxean, gaueko 9.30etan.

11 LARUNBATA

ZINEA
 "La tabla flandes" 5etan, 7.30etan eta 10etan.

FOLK ASTEBURUA
 Sebero Altube plazan, eguerdiko ordu batean "El bosque", 2etan "The Hackney Ramblers", 7etan "La Cucina" eta 8etan "The Hackney Ramblers". Musakolako kiroldegian, gaueko 10etan "Rock, Salt and Nails", 11etan "Na Lúa", 12etan "La Cucina", ordu batean "Nuevo Mester de Juglaria" eta 2.30etan "The Ukrainians".

ERGUIN ESKOLAKO ASTE KULTURALA
 Goizeko 9.30etan kirol lehiaketa. 10.30etan gimnasia eta karate saioak. 11.30etan Azkona taldeko pailasoen saioa.

MENDI IRTEERA
 Besaideko mendiko eski taldeak travesia antolatu du Vall D'Aranen larunbat eta igandeko.

12 IGANDEA

ZINEA
 "La tabla flandes" 5etan, 7.30etan eta 10etan.


MUS TXAPELKETA EMAKUMEENTZAT
 Leintze Elkartearen arratsaldeko 4retan. Gaueko 9etan aforia egongo da.

TRIALSIN TXAPELKETA
 Gipuzkoako Trialsin Txapelketa Udalan. Goizeko 10.30etan Arrasateko Motozale Elkarteak antolatuta.

KANTALDIA
 Benito Lertxundi eta Andoni Egañaren emanaldia, Amaia antzokian arratsaldeko 7etan. AEKk antolatuta.

FOLK ASTEBUKAERA

Ostirala eta larunbatean folk kontzertuak Sebero Altube Plazan eta Musakolako kiroldegian.



ERAKUSKETA
 "Txontxongilo artegintza" erakusketa Harresi aretoan martxoaren 17ra arte. Egitela: Corrado Masacci. Ordutegia: egunero 6etatik 8ak arte eta larunbat eta jai egunean 12etatik 2ak arte eta arratsaldeko 6etatik 8ak arte.

13 ASTELEHENA**ZINEA**

"La tabla flandes" 7etan, 9.30etan.

ODOL-EMATEA

Arrasateko Anbulategian arratsaldeko 4.30etatik 8ak arte.

14 ASTEARTEA**ZINEA**

"La tabla flandes" 7etan eta 9.30etan.

ODOL-EMATEA

Arrasateko Anbulategian arratsaldeko 4.30etatik 8ak arte.

HITZALDIA

Gaia: "Euskal musika tresna tradizionalak". Hizlaria: Lorentxo Altube, musika tresnen artisaia. Monterronen arratsaldeko 4.30etan. Jubilatuen Etxeek antolatuta.

15 ASTEAZKENA**EKITALDI MUSIKALA**

"Parrokiako otxotea" eta "Bibolin bikotea"ren emanaldia. Monterronen arratsaldeko 4.30etan. Jubilatuen Etxeek antolatuta.

HITZALDIA

Gaia: "Europako maparen aldaketak azken urteotan". Hizlariak: Josu Tellabide, Aranzadi Elkartekoa eta Luis Fernandez, Euskaldunon Egunkariako kazetaria. Monterronen arratsaldeko 7etan. AED antolatuta.

"ALKATEAREKIN BERBETAN" ATBn

Alkatearekin berbetan saioa ATBn, Mikel Irizarrek aurkeztuta, gaueko 9.30etan.

16 OSTEGUNA**ZINEA**

"Los inmortales III" 7etan eta 9.30etan.

ZINE KLUBA

"Ley 627" gaueko 9.30etan Amaia antzokian. 300 pta., gazte txartelarekin 250 pta.

YOGA ELKARTEAREN HITZALDIA

Gaia: "Bizitzaren kemen uni-bertsala" arratsaldeko 6.30etan Monterronen. Arrasateko Yoga Elkarteak antolatuta.

HITZALDIA

Gaia: "Gaztea goi-mailako ikasketen aurrean". Hizlariak: Begoña Asua, Mikel Balerdi eta Daniel Larrea. Gazteluondo Ikastolako batzararetoan arratsaldeko 6.30etan. San Frantzisko Xabier ikastolak antolatuta.

IPUIN TAILERRA


AEDk ipuin tailerra jarriko du abian. Ikastaroa idazteko zale-tasuna duten 15 urtetik gorakoei dago zuzenduta. Larunbat goizetan batuko dira, printzipioz bost astean. Lehendabiziko eguna 18a izango da goizeko 11etan, AEDn (Pablo Uranga, 4). Interesatuok AEDra dei egin.

REIKI IKASTAROA

Martxoaren 25 eta 26ko astebukaeran Reiki ikastaroaren lehen maila. Emalea: Ana Otero, Reiki irakaslea. Arrasate Yoga Elkarteak antolatuta.

**TRIALSIN TXAPELKETA**

Martxoaren 12an domekan, Udalan goizeko 10.30etatik aurrera.

**KIROLDEGIKO OHARRA**

Martxoaren 25ean, Musakolako eta Iturripeko kiroldegietan frontoiak, futbol eta squasheko kantzak alokatzeko interesatuta dauden pertsonak, bilera izango dute goizeko 11etan Musakolako bulegoan.

ERAKUSKETA

"Euskal Herriko soinu tresnen" erakusketa martxoaren 16ra bitartean Monterronen. Egilea: Lorentxo Altube. Ordutegia: egunero 6etatik 8ak arte eta larunbat eta jaiegunetan eguerdiko 12etatik 2etara eta arratsaldez 6etatik 8etara.

“Kogresuetan parte har dezakeen ordezkari kopurua gehitzeak arazo logistikoren bat ekarriko digu. Horrez gain, 370etik 600erakoa ez da hazkunde handiegia, komunikazioa eta partehartzeari ez dio gehiegi eragingo. Dena den, kopurua handitu ahala ordezkaritza handitzen duzu, baina partehartzea txikitu. (...)

Salmentetan %20 hazi gara eta iaz industri taldean 650 lanpostu berri sortu genituen eta banaketa taldean 920. Urte ona izan da. 1995a ere oraingoz ondo datorkigu; urtarrilean iaz baino %28 gehiago saldu dugu, eta banaketa taldeaz beste horrenbeste esan liteke. Baina garrantzitsuena da gure egiteko moduak hobetzen ari garen ala ez, merkataritza sareak, produktuaren kalitatea eta prestakuntza, bezeroa zaintzea... Hobetzea ez da nahikoa, lehiakidea baino gehiago hobetu behar da. Hor dago gakoa, eta bidea oraindik luzea da”.

Jose Ignacio Aldekoa, 1995-III-5
MCCren Kongresuko lehendakaria

ARGIA

“Senideak 600 lagunek osatzen dugu eta bertan dagoen aniztasun politikoa aho-zabalik geratzeko modukoa da. Bakea lortuko bada, positiboki hitz egiten hasi behar dugu. Gu, dagoeneko, hasi gara positiboki hitz egiten. Beti, azkena izan dadila gura dugu. Esaldi borobilak esanda ez da ezer ere konpontzen; hurrengo bisitan nire senitartekoak bizirik topatuko ditudan garantia behar dut nik. Zuzenbidezko Estatuak mekanismoak eduki dauzka baina ez dira erabiltzen interes politikoak direla eta. Zuzenbidezko Estatuak bere mekanismo propioak ditu, eta erabili egin behar ditu. Gu, gizarte osoa, gauza izan behar dugu bete daitezzen derrigorrezko”.

Jon Barrena 1995-III-3
Senideak-eko partaidea

rifi-rafe

Zer dela eta antolatu duzu emakumeendako mus txapelketa?

Niri asko gustatzen zait musean egitea eta aspalditik neukan buruan txapelketa antolatzearen ideia. Bestalde, ni jubilatua nago eta batzuetan erosketak neuk egiten ditudanez, emakumeekin hitzegiteko aukera izaten dut. Horrela bada, behin aurtengo San Baleixo jailetako karta txapelketan zer gertatu zen kontatu zidaten emakume batzuk. Txapelketa horretan, gizonezkoek musean eta emakumezkoek briskan jokatu zuten eta sariak banatzerakoan, gizonezkoek sari onak eman zizkieten eta ezer gutxi, berriz, emakumeek. Hori dela eta pentsatu nuen: zergatik pentsatzen da emakumeek ezin dutela musean jokatu? Eta horrela, nik neuk irakatsiko niela eta gainera sari onak emango lituzkeen txapelketa antolatu nuela erabaki nuen.



Roman López

Txapelketaren antolatzailea

Lehenengo emakumeek eman nire asmoaren berri eta hasieran apur bat beldurtu egin ziren arren, neuk irakatsiko niela agindu eta baietza eman zidatenez, txapelketa antolatzen hasi nintzen ni. Txapelketa datorren domekan, hilaren 12an jokatuko da eta 32 emakume eman dute izena, hau da, guztira 16 bikote osatu dira. Aste batzuk lehenago musean jokatzen irakatsi diet, oinarrizkoena batez ere, eta jokua izugarri gustatu zaiela eta txapelketarako ilusio handia daukatela esan beharra dago. Bestalde, txapelketaren berri eman dut herriko komertzioetan eta sariak eman dizkirate hainbat dendarik. Gainera, hainbat sari lortu dudanez, partehartzaile guztiek jasoko dute sariren bat.

Niretako poztasun handia izan da emakumeek musean jokatzen irakastea eta orain musean badakitenez, aurrerago egingo diren mus txapelketetan emakumeek ere parte hartuko dutela espero dut.

PARDO estetika zentrua

- DEPILAZIO PROGRESIBOA
- DEPILAZIO ELEKTRIKOA (BLEND METODOA)
- DEPILAZIOA ARGIZARI HOTZ ETA BEROAREKIN
- SOLARIUMA (DUTXAREKIN)

%10eko deskontua Gazte-txartelarekin

AURPEGI ETA GORPUTZERAKO TRATAMENDUAK

- Drainaketa linfatikoa.
- Erreafirmatzailea.
- Elektroeskultura eta ultrasoinuak.
- Antizeluliti murriztailea.
- Mantenimendua.

SENDAGILE-DIETISTAREN KONTSULTA

- Dieta pertsonalizatuak, medikuaren kontrol eta aholkuarekin.

Iparagirre enparantza, 4 Behea. Grupo San Juan
☎: 79 52 17 ARRASATE

Elena

Bizkaia Etorbidea, 1 etxebaia ARRASATE Tfnoa: 77 14 24

CC.OO.en hitzaldia

“Ezagutu erabiltzen duzuna” lemapean, hitzaldia eman zuten joan zen martitzenean CC.OO.en Gipuzkoako lan eta ingurugiro arduradunek. Hizlariak esan zuten, industrian, nekazaritzan eta zerbitzuetan produktu kimikoak erabiltzen dira baina horiek sortarazten dituzten ondorioak isilpean gordetzen dira. Horregatik, produktuek informazioa ematen duen etiketarik badaramaten begiratu behar dela gomendatu zuten.

Hitzaldia

Arrasateko jubilatuek antolatuta, musikari buruzko hitzaldia eman zuten Juanito Arzamendik martitzenean. Musika eta soinuaren jatorria zein den eta musikak Arrasaten izan duen garapena azaldu zuten Arzamendik. Zelan ez, Arrasate Musikalek izandako garrantzia eta astebukaeran izan ziren operek eduki zuten arrakasta ere aitatu zituen.

Gurutze Gorria

Deba Garaiko Gurutze Gorriak otsaileko ihardueraren berri eman du. Joan zen hilean lau kirol istriputan, oinezko bost istriputan eta hemeretzi trafikoko istriputan lagundu zuten Gurutze Gorriak.



Andaluziarren eguna

Andaluzia VI. eguna ospatu zuten joan zen zapatuan Arrasate eta inguruko andaluziarrek. Eguerditik gaueko 12ak arte izan ziren andaluziarrak Musakolako kiroldegian eta bertan hainbat ekintza egin zuten: sevillana lehiaketa, haur jolasak eta herri afaria, beste batzuen artean.

Antzokia beteta “La Traviata” eta “Otelorekin”

Arrakasta izugarria izan zuten Ostravako Antzerki-Taldearen Opera Nazionalak herrian eskaini zituen bi operek. Zapatuan “La Traviata” opera antzeztu zuten eta antzokia zeharo bete zen. Domekan, berriz, “Otelo” eskaini zuten eta antzokia guztiz bete ez bazen ere, jende ugari joan zen obra hori ikustera. Arrasate eta inguruetatik ezezik, Estatutik ere etorri zen jendea Verdiren operak ikustera.

Operak herrian izan duen arrakasta ikusirik, azaroan beste emanaldiren bat eskaintzea hausnartzen ari da konpainiaren produktorea eta urtero opera emanaldi batzuk antolatzearen aukeraz ere hitz egin zuen. Horrez gain, itxura denez, hurrengo Goikobalukoak joango dira Ostravara bertan kantatzera.



Emakumeen Nazioarteko Eguna

Asteazkenean Emakumeen Nazioarteko Eguna zela eta, hitzaldiak eta ekintzak izan dira aste guztian Arrasaten. Hitzaldiak Emakumeen Asanbladak, Egizanak, Gazte Batzordeak, Famili eta Gizarte Hezketarako Zentruak eta Ekinek antolatu zituzten. Eguaztenean, gainera, manifestazioa egin zen arratsaldeko 7.30etan. Manifestazioa Sebero Altube plazatik atera zen “Emakumeok betidanik erasoturik baina aski da” lemapean eta Erdiko Kaletik ibili zen. Bukaeran berriz ere Seberora bueltatu ziren eta Zutik-Emakumeak kanta kantatu zuten.

JAIOTZAK

- Mikel Barquero Carmona. Otsailaren 26an.
- Maialen Etxabe Lejardi. 26an.
- Amaia Frias Olaso. 25ean.

ESKONTZAK

- Florentino Aldekoa Irazola & Maria Concepción Gonzalez Larrañaga. Zibilez. Martxoaren 3an.
- Carlos Barandiaran Zabaleta & Adelaida Maidagan Lazkano. Zibilez. 4ean.

HILDAKOAK

- Concepción Narvaiza Goenaga. Martxoaren 1ean. 67 urte.
- Juan Bautista Elorza Eriz. 2an. 75 urte.
- Vicente Alberdi Sorazu. 3an. 69 urte.
- Teodora Gallastegi Uzarraga. 5ean. 93 urte.
- Andres Zabaleta Pildain. 5ean. 64 urte.

FELIPE MADINA
ZURAK
 Zarugalde, 40 ARRASATE
 Tfnoa: 79 13 78

 **EGVZKIGRAF**
Grafikagintza. Tipografia.
Offset industrialia
 Aretxabaletako industrialdea, F-0-4 Tfnoa: 79 18 44 - FAX: 79 29 41

- Liburuak
- Aldizkariak
- Katalogoak
- Liburuskak
- Merkatal inprimakiak
- Bulegoko materiala



* JOSU SARASUA

Guretzat autopista!

Prozesu luzea da autopistarena, espekulatiboa eta aldakorra, ezkutukoa eta zabala aldi berean, oinarri sendo baten faltan burokraziaren sareetan noraez dabilena.


Jaurlaritza eta diputazioek osatutako DEBASA plataformak aztertu, proposatu, manipulatu eta inposatu nahi digu, Europar Elkarteak eta Eurovias pribatuak (peaje eta peaje luzapenen truke) jarriko lukete dirua (%90) eta guk bailara, pasabide polita eta laburrena Europa-Espainia-Portugal ardatzarentzako, aldi berean jokaldi bikoitza gure agintarientzako, Autopista muxutruk, marra zuzenaren legez EAE zeharkatzen duen norabide berdineko hirugarren ardatz azkarra.

Agintarien leloaren sintesia eginez 100.000 milioi hauen justifikazioak bertebrazioa, garapena eta ongizatean dute abiapuntua, gurea ekarriko ez dituen ezauzgarriak, esplikatu nadin.

Lehenik, Autopista-berrebrazioa binomio kontrajarria da, gure kasuan eragin iso-

latzailea dakarkigu. Lurraldeko barne trafikoaren maila ezberdinek erabiliko ez dutelako hain zuzen ere, ordaindu beharreko bidesariak ez baitu aurreratutako denbora mespresagarria konpensatzen, erosotasun paretsuan izango diren N-1 eta A-8/A-68 ipar-hego ardatzen funtzionaltasuna lekuko. Gure lurraldearen benetako bertebrazioan, ezker-eskubirako ardatzak finkatzen ikusten dugu lehen-tasuna, A-8aren liberazioa eta Durango-Beasain korredoren eraketa alegia.

Autopista-ongizatea edo bizi kalitatea binomioa ezkontezina da. Gure bailarak dituen ezaugarri orografiko eta demografikoak kontuan izanda, autopistak ekarriko luke-



*“Herria
hausnarketa
sakona egitera
bultzatu nahi
genuke.”*

en kutsadura atmosferiko, fisiko eta akustikoa, arriskua, egoera estresante jarraia eta zeharkaezina, ezaugarri paisajistikoen degradazioa, ekosistema ororen haustura, lur sailen ordenamenduaren suntsipena, nekazari eta abeltzainen ondasunen konfiskazio merkeak eta abar luzeak bertako biztanleen bizi kalitatea hobetuko duela uste duenak ez dauka oker makala.

Autopista-garapena binomioa, berriz, erlatiboa da, neurri kontua, zalantzarako errentagarritasuna tarteko. Euskal Herriko hainbat zonak erakusten digu autopista bertantxe izanda gure garapen mailarekiko duten desfasea.

Petrolioaren etapari gertatzen zaizkion azken 40 urteetan (hirugarren mundua “zuloan” mantentzen badugu behintzat), ingurugiroarekin eta denen ongizatearekin bat datorren garapen mota kudea beharko genuke, proiektu koptoplazista eta sobredimensio-natuak baztertu, lehen-tasunak birbaloratuz. Gure kasuan egungo sarea hobetzean dago giltza, bailaren funtzionamendu eta garapen beharretara egokituko den alternatibari, NIPetan oneritzi beroen jasotzeaz gain eta autopistaren 100.000 milioiren %15az gauzatuko litzateke; honen inguruan herria hausnarketa sakona egitera bultzatu nahi genuke eta hausnarketa horren emaitzak egun jarri dugun alegazioan elkartzeko gonbidapena egin.

* HARAN-BIZIA
PLATAFORMAKO KIDEA

USTEAK USTE

ARARTEKOA

Izendatu dute bost urtez, gutxienez, karguan iraungo duen Arartekoa. Eta Arartekoa honek, berak esan duenez “herritarrak Administrazioaren aurrean defenditzea izango da bere jardunaren helburu”. (Esatea ere!) Baina nola defenditu behar ditu herritarrak bera gauza ez bada herritarren oinarri-oinarriko eskubideari erantzuteko, herritarrok geure hizkuntzan entzun eta erantzunak izatekoari alegia? Ez al da konturatzeko berarekin hitz egitean gure eskubide bati uko egitera behartzen gaituela? Orain ere, nahiz eta bi hizkuntz ofizial izan, bata bestea baino ofizialagoa? Baina ez bakarrik hori, izendatu berri duten Arartekoak dioenarekin jarraituz, “kalean egongo da herritarren kexen berri izateko eta hauen interesak defenditzeko...” Hau entzun ondoren nik pentsatzen dut gaztelaniaz kexatzen direnenak bakarrik jasoko dituela, zaila baita euskaraz jakin barik hizkuntza honetan ari direnen kexak jasotzea. Baina hori bai, hizkuntza dela-eta arazak izanez gero, defendituko gaitu, agian beste batzuk berak bete ezin duena betetzera behartuz. Bestalde ez dut sinesten, ez dut sinestu nahi, herri honetan ez dagoela euskera ere ezagutzen, Ararteko postua duintasun osoz beteko duen pertsonarik. Benetako duintasun eza izendapen honekin erakutsi digute.

AMAIA JAUREGI-ARRABURU



**Taberna-jatetxea
Kafetegia**

- Eguneroko menua eta kartako menua
- Bazkari azkarrak, pizzak, hanburgesak, sandwichak,...

Prezio guztiz eskuragarriak!!

Larrea enparantza, 5 behea Tfnoa: 77 01 69

ATABAKA



Bitorriano Larrañaga

**ANTZINAKO GAUZAK • ALTZARI ZAHARREN
KONPONKETA ETA BERRIKETA**

Artekale, 27 ☎: 76 50 80 (Gaueko 9etatik aurrera)



la hamar milioi kostako da sistema hau jartzea.

Ur sarea kontrolatzeko telekontroladorea jarriko da

Zenbat ur kontsumitzen den jakiteko eta ur sarearen kontrola eramateko, telekontroladore sistema jarriko da Arrasaten. Urkultik zenbat ur hartzen den neurtuko du sistema horrek (neurketa hori Kontzezinon dagoen deposituan egingo da) eta kable bidez Santa Marina eta Musakolarekin harremana izango denez, toki desberdinetan zenbat ur kontsumitzen den ezagutzeko modua izango da. Gainera, uraren indarra ere neurtuko da.

Garrantzitsuena zera da, telekontroladore sistemarekin orduro, egunero eta hilero zenbat ur gastatzen den jakin ahal izango dela. Modu horretan, zein egunetan kontsumitzen den ur gehien esango digu eta anomaliaren bat izanez gero, hau da, ur sarea punturen baten apurtzen bada, sistemak alarmaren bidez abisua ematen duenez eta ur isurketa non dagoen adierazten duenez, segituan konpondu ahal izango da. Urtean 70 milioi pta. inguru

gastatzen dira Arrasaten ur kontsumoaren ondorioz (egunero 5.000 m³ ur erabiltzen dira) eta fugen kontrol zuzenagoa eta zorrotzagoa eramango denez, horiek lehenbailehen konponduta, ordaindu beharreko kopuruak behera egin dezakeela uste da.

KABLE BIDEZ

Goian esandako moduan, Santamarina eta Musakola kable bidez izango dira harremanetan Kontzezinon dagoen deposituarekin eta azken hori, irrati bidez Udaletxean ezarriko den estazio zentralarekin. Horrela bada, herria hiru zatitan banatuta geratuko da, baina aurrerago, herri guztian hedatu nahi da sare hori.

Telekontroladore sistema jartzea 9.719.601 pta. kostako da eta Hernani, Irun, Hondarribia eta Gipuzkoako beste herri batzuetan dagoeneko badute ur sarea kontrolatzeko sistema.

Ikastetxeetan matrikula

Herriko ikastetxeetan aurrematrikula egiteko epea ireki dela eta, Udaleko Hezkuntza Sailak AEDrekin elkarlanean, euskararen irakaskuntzaren aldeko sentsibilizazio kanpaina hasi du. Kanpaina horren helburua, seme-alabak lehendabiziko aldiz matrikulatu behar dituzten gurasoei informazioa ematea eta euskarazko eredia aukeratzeko kontzientziatzea da. Horretarako eskutitzak bidali dira herriko etxetara eta gutunetan esanetan denez, seme-alabei euskaraz ikasteko aukera eman behar diegu biharko egunean gizartean baldintza eta aukera berdinak izan ditzaten.

Gaurko egunean haur hezkuntzan ume guztiak euskarazko eredian matrikulatzen dira eta OHOn A eredia desagertu dago.

Ingurugiro Kabina

Eusko Jaurlaritzako Ingurugiro Sailak ingurugiro kabina jarri du Lau Bideko aparkalekuaren ondoan. Kabina horrek airearen kalitatea neurtuko du eta Bilboko zentru batetara bidaliko ditu datuak. Modu horretan edozein arazo izanez gero, bulego horrek abisua emango du. Arrasaten batez ere autoek botatzen duten keak kutsatzen du airea.


ESKIÑA
TABERNA
Gaupasa on denontzat
Olarte, 25

SHOT!
grabaciones

SHOT! grabaciones S.L.
Araba Etorbidea, 3 - 2. solairua
Eskatu Pabilioia
☎: 943 - 79 37 51

ARRASATE Gipuzkoa





Asteazkenean prentsaurrekoa izan zen Eskualde Ospitalean anestesia horri buruz hitzegiteko.

Anestesia epidurala, kasu batzuetan bakarrik erabilgarria

Anestesia epidurala, hau da, haurra erditzeko orduan minik izan ez dezaten emakumeei gerritik behera jartzen zaien anestesia mota, komenigarria izan daitekeenean eta ondoriorik ekarriko ez duela ziurtatzen denean erabili behar da. Azalpenok Eskualde Ospitaleko arduradunek eman zituzten joan zen asteazkenean eman zuten prentsaurrekoak.

Eskualde Ospitalean iaz hasi ziren anestesia epidurala erabiltzen baina ezarpena aurtentzen izan da. Anestesia hori emakumeak hala nahi duenean eta ondorio txarrik ekarriko ez duela frogatzen denean edo erditze mingarria izango dela ikusten den kasuetan erabiltzen dutela argitu zuen Astola medikuak,

Ginekologia Saileko buruak. Astolaren berbetan, anestesia epiduralak bere abantailak dituen arren, arriskuak ere izan ditzakeela argi utzi behar da.

Eskualde Ospitalean %15 eta %20a bitarteko erabilpena du anestesia horrek.

Horrez gain, ginekologia sailean eskaintzen diren zerbitzuen berri ere eman zuten eta gurean beste ospitale batzuetan adina zerbitzu dagoela adierazi zuten arduradunek. Diagnostiko goiztiarra eta bularreko minbi-ziaren tratamendua egiten dira Eskualde Ospitalean eta gainera, jaioaurreko diagnostikoa ere egiten zaie 35 urtetik gorako emakumeei edo Down sindromedun haurra izateko arriskua dutenei.

14 urte bi arrasatearrendako

Donostiako audientzia probintzialeko fiskaliak hamalau urteko kartzela zigorra eskatu du Aitor E.O. eta Enrike F.O. arrasatearrentzat, manifestazio baten amaieran banketxe bati su emateagatik. Fiskalaren iritziz, 1993an Mariñelena etakidearen aldeko manifestazioa egin ostean, Enrique F. gazteak Banco Central Hispano Americano banketxe kristalak apurtu zituen eta Aitor E. delakoak sua piztu zuen. Ikusketa egin zenean, bi gazteok ukatu egin zuten ekitza horiek egin izana.

Kaleak asfaltatu

Aste honetan herriko hainbat kale asfaltatu da eta datozen egunotan ere beste batzuk asfaltatuko dira. Orain arte Anboto kalea, Jauregi Berria kalea, Uribe kalea, Loramendi kalea eta Nafarroa etorbidea asfaltatu dituzte eta datorren astean, astelehenean edo martitzenean Biteri kalea eta beharbada Azoka kaleaz gauza bera egingo da.

SENDATZAILEA
Consuelo Uriberalzo Gomez

- Masailari magnetista
- Energia-transmisioa
- Gailz guztien tratamendua eskuak gainean ezarriz

Astelehen eta ostegunetan
 14:00etatik 20:00etara

Gazteluondo, 9 behea
 S. F. X. Ikastola parean
 Arrasate ☎: 943-79 22 86

Karlos Oianguren
 Belarritako, kate eta eraztunen konponketa
 Metalak urtu eta eraldatzea

Biteri, 13 behea Tfnoa: 79 34 26

**I
R
T
A
B
E
R
N
A**

Ferrerias kalea
ARRASATE
 Tfnoa: 79 56 11

Parrokiako obren bigarren fasea hasi da

Hasi da San Juan Bataiatzailearen parroki zahar-berritzeko obren bigarren fasea. Fase horretan Erdiko Kaleko fatxada konponduko da eta Arrasateko Udalak, dagoeneko, hamar milioiko dirulaguntza eman du obra hori egiteko.

Parrokia berritzea helburu duen batzorde eragilearendako ezusteko handia izan da konpondu behar duten fatxada uste baino egoera txarragoan dagoela ikustea. Teknikoen esanetan, harria deseginda eta egoera kaskarrean dagoenez, uste baino gehiago kostako da konpontzea. Hala ere, fatxada hori San Juanetarako konponduta izatea espero da.

Bestalde, parrokia konpontzeko diru eskariak aurrera jarraitzen du. Aste honetan Santamainan banatu dituzte eskari orriak eta Donostia eta Gasteizen bizi diren mondrauetarrei ere bidaldi zaie eskutitza.

Parrokia zahar-berritzea 420 milioi inguru kostako da; Udaletik, Diputaziotik eta herriarregandik, atal bakoitzetik 140 milioi jasotzea da batzordearen asmoa.



San Juanetarako fatxada bukatuta izatea espero dute.

Korrika Arrasaten

Martxoaren 23an, goizeko zazpiak aldera, Korrika pasatuko da Arrasateetik. Hori dela eta, aurreko astebukaerarako hainbat ekintza antolatu da eta argazki erakusketa bat ere izango da ikusgai. Bestalde, Udaleko Euskara Batzordeak Korrikako lau kilometro erosi ditu.


Gazteendako dirulaguntzak

Gazte taldeei zuzendutako dirulaguntzak jasotzeko deialdia egin du Udalak.

Eskariak martxoaren 31 baino lehen aurkeztu beharko dira Arrasateko Udalean honako argibideekin batera: 94ko iharduera, 94ko sarrera eta gastuak, 95erako asmoak eta 95erako gastuak eta sarrerak.

LORAMENDI

mugi zaitez!!
bila itzazu sentzazio berriak
"in line" patinekin





Arpa da, jakina, baina ez nolana hiko. Argazkian duzuen arpak 200 bat urte ditu eta Pariskoa da. Udalako Kontzeziño Mojetan dago eta esaten dutenez, lekaime batek jasotako herentzia ei da. Eskuz landuta dago arpa, bi metro baino gehiago ditu eta 46 soka, guzti honen berri Loretxo Altubek eman digu. Relikia hori ondo gordetzea merezi du!



Meca-ko III. Marrazki Lehiaketako irabazleen izenak eman ziren jakitera asteartean. Gaia "Zer izan gura zenuke nagusi egiten zarenean?" zen eta irabazleak hauexek izan dira. 6 eta 9 urte bitartekoetan Gorka Lete izan da irabazlea, bigarren Markel Agirre geratu da eta Naia Peñanes hirugarren. 10 eta 14 urtekoen artean, Nagore Ipinaren marrazkia izan da onena, Ander Sanchez izan da bigarrena eta Aitor Odriozola hirugarrena.

S. CARRASCAL S.L.
Bertan egindako:

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikaren erakusketa
 Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a
 Tfnoa /FAX: 79 01 82

MARGOAK
JUANMA
 Margoak, paperak,
 gotelea e.a.
 Agerre kalea, 5 3. ezk.
 Tfnoa: 79 69 17

Iurrindegia **Perfumeria**
ZARRAOA
ZARRAOA
EL ARCA DE NOE

- Estetika kabinetea
- Larruzko artikuluak
- Bitxitegia
- Jostailuak

Kanpatorpea, 4
 Tfnoa: 79 12 19 ARRASATE

IZEN PROPIOAK

● **Alberto Errazti**, 33 urte, Iurretan bizi baina jaiotzez arrasatearrak "Iurreta Elizateko euskara eta toponimia" liburua argitaratu berri du. Euskal Filologian Lizentziatuta dago eta argia ikusten duen bere bigarren liburua da.

● **Aintzane Larrañaga**, 21, osintxuarra eta **Irene Murgizu**, 21, bergararra izango dira ARKOko bekadun berriak. ETEOn ikasten dute eta lau hilabetez izango dira gurean. Nerea Atxa eta Cristina Gallastegi izan dira orain arteko bekadunak.


● **Bittor Iñarra**, 27 urte, arrasatearra Indonesiara joango da urtebeterako komertzi teknikari lan egiteko. Urretxuko Sarralde enpresan egiten du lan. Estatu Batuetan, Boise State Universityn gaztelerako irakaslea izan zen Bittor. Injinerutza ikasi zuen Eskola Politeknikoan.



Josetxu eta **Jon Ander** dira Ramon Rivasen albo banatan daudenak. Saskibaloia jarraitzaile amorratuak dira eta Taugres Basconiak eta Iraklisek jokatu zuten Europako final-erdietako par-

tidua zuzenean ikusi zuten Araba pabilioian eta, jakina, ez zuten Rivasekin argazkitxo ateratzeko aukera galdu. 2 metro eta piku nork daukan ezagun da, ezta?

Aretxabaletako Ibarra futbol zelai artifiziala inauguratu zen domekan. Mondra taldeak oroigarria oparitu zien UDAKoei inaugurazioa zela eta. Hemendik aurrera, ALMENERa joan barik, Ibarra jokatu dituzte partiduak UDako jokalariek. Inaugurazio egunean, dena dela, UDak ez zuen zortirik izan eta Eskoriatzak 0 eta 2 irabazi zion. Hurrengoan izango da!



LOGOPEDIA
ZENTRUA
ARRASATE

HIZKUNTZ ARAZOAK

HIZKETA ARAZOAK

AHOTZ ARAZOAK

IRAKUR ETA IDATZ ARAZOAK

Zurgin Kantoi, 3 - 1º Esk.
Tfnoa: 79 79 46 • ARRASATE

ELEKTRONIKA
ARTIKULUEN
SALMENTA

BAZAR
TOKI ON

J. Carlos Guerra, 1 Tfnoa: 79 91 64 ARRASATE

SAN VIATOR IKASTOLA

**95 / 96 Ikasturterako
matrikulazio epea zabalik**

Gure sailak



ORIENTAZIO SAILA

- Orientazio Sailaren lan nagusia, ikasle, irakasle, guraso eta ikastolaren beraren arazo eta beharrei irtenbide hezgarriak ematea da.
- Lana ondoko esparruetan burutzen da: behar bereziak dituzten ikasleei atentzio psikopedagogiko zuzena, orientazio prebentiboa, tutoretza lana bultzatzea, gurasoei aholku ematea eta orientazio profesionala.



ARTISTIKA SAILA

- Artistika arlotik, haurra, kolore, soinu eta mugimenduaren bidez barneko bizipenak kanporatzeko gai izatea bultzatzen da, adierazpena eta komunikazioa medio direla.
- Arlo honek Dramatizazioa, Plastika eta Musika globalizatzen ditu.

KIROL SAILA

- Arlo honek, kirol ohituren bidez, pertsonaren garapenean parte zuzena hartzen du.
- Ekintza desberdinen planifikazioa eta koordinazioa burutzen da sail honetatik: psikomotrizitatea, multikirola, barne kirol lehiaketak, eskola arteko kirol lehiaketak, ikastaroak, asteburuetak ekintzak, hitzaldiak... eta Udako Kirol Eskola.

Gure proiektuak

MEDIATEKA

- Ikaslearen apendizaiia autonomia bultzatzen du.
- Ikaslearen dibertsitateari erantzun egokia ematen dio.
- Bertan, ikasle eta irakasleak, mota guztietako informazioa aurki dezakete.
- Gure Hezkuntz Proiektuaren ardatza da.



*Gure irakasle
taldea*

- Hurbila
- Dinamikoa
- Bere formakuntzaz arduratua

Arrasate Pasealekua, 10

ARRASATE

☎: 79 04 11 Fax: 77 00 73

ZALDIBAR Futbito 94-95 Txapelketa

Babesleak: JMFA, Kajoj taberna eta Arrasate Kirolak



Bigarren fasea hasiko da

Astebukaeran atzeratuta geratu ziren neurketak jokatu ziren. Perrahotsak eta Artzankos taldeek neurketa bizia bezain lehiatsua jokatu zuten eta emaitza 5 eta 4koa izan zen Perrahotsaren alde. Perrahotsak garaipena behar zuten bigarren faserako sailkatzeko eta neurketa irabazi egin zuzenez, hortxe dugu bigarren erronkari aurre egiteko prest. MSM ingenieria Integral eta Ojo Avisorek jokatu zuten bigarren neurketa. Talde biak bigarren fasean zeuden, beraz, ez zen ezer ere jokatzen. Tramite hutsezko par-

tiduan MSMk irabazi zuen 8 eta 3. Zaldibarren bildutakoek gol zaparrada galanta ikusteko aukera behintzat izan zuten. Asteburu honetan bigarren faseari ekingo diote eta jakina den bezala partidu guztiak Zaldibarren jokatuko dira. Zapatuan goizeko 9etatik 7ak arte eta domekan 9etatik ordu bata arte futbitoa izango da nagusi Zaldibaren. Bigarren fasean antolatzaileek jarriko dituzte epaileak eta final-laurdenetatik aurrera taldeek aukeratu beharko dute epailea. Zorte on talde guztioi!

Arreta
haundiko
sukaldea

Garagartza auzoa

UGARAN
jatetxea

Tfnoa: 79 76 58

Giro
abegikorra

ARRASATE

Azken sailkapena

A taldea	
ADELAIDA HAIZEA	31
FOSFOROS	30
ZULOAK	30
BUKANAK	29
ZOTZ	29
CERV. LEINTZ	28
GANBELAS	20
HIREI	19

B taldea	
NUEVO TABERNA	32
SUMI. UGARTE	30
TRIKITI	28
PEPELUS	27
PUB PEOPLE	27
TOTEM	25
PETROLEROS	25
LOS DIMY	25

C taldea	
IRATI STS	31
EQUUS BTR	29
AUTOS MURU	28
ORLANDO PIRATAS	28
LORA. POTROAK	27
ARTZANKOS UDA.	26
KE OXTIAS	24
PERRAHOTSA	22

D taldea	
ARGI IBILI	36
AC SURCOS	33
MSM INGENIER.	29
D.A IRIZTU	26
LOS HEREDIA	25
OJO AVISORE	25
MIKELOS	24
SOKOAKOAK	22

Bigarren faseko taulak

A taldea	
ARGI IBILI	
EQUUS BTR	
ORLANDO PIRATAS	
PEPELUS	
HIREI	
ARTZANKOS	
PERRAHOTSA	
LOS DIMY	

B taldea	
IRATI STS	
AC SURCOS	
MSM ING INTEGRAL	
D. A IRIZTU	
LOS HEREDIA	
LORATEGI POTROAK	
SOKOAKOAK	
PUB PEOPLE	

D taldea	
NUEVO TABERNA	
FOSFOROS	
ZULOAK	
BUKANAK	
CERV. LEINTZ	
OJO AVISORE	
PETROLEROS	
TOTEM	

E taldea	
ADELAIDA HAIZEA	
SUM. UGARTE	
TRIKITI	
AUTOZ MURU	
MIKELOS	
ZOTZ	
KE OXTIAS	
GANBELAS	



URONDO elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa

Tfnoak: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76

ARRASATE



BELARRIRA

◆ **Balorazioa.** Zaldibar txapelketako lehen fasea bukatu denean, balorazio positiboa egin dute antolatzaileek. 80 taldek eta 1.225 jokalarik hartu dute parte eta ez da arazo azpimarragarririk izan. Zigorrei dagokienez, iaz baino gutxiago izan dira eta antolatzaileek behin baino gehiagotan lokartu egin diren arren, txapelketak ez du gorabeherarik izan.

◆ **Noiz arte Zaldibar.** Astebukaera honetan bigarren fasea hasiko da Zaldibarren. Fase hori apirilaren 30ean bukatuko da. Maitzaren 6an hirugarren faseari ekingo zaio eta hiru astebukaera iraungo ditu. Maitzaren 27 eta 28an final-laurdenak jokatuko dira. Final-erdiak, berriz, ekainaren 3 eta 4ko astebukaeran eta final handia ekainaren 10ean.

◆ **Epaileak.** Bigarren faseko lehen jardunaldian Aizkorak, Carabiasek, Canachok, Perezek eta antolakuntzakoek egingo dituzte epaile lanak.

EMAITZAK

A taldea

Fraguel Gol 1 - Zuloak 5
 Hirei 3 - Arrasate Kirolak 2
 Zotz 3 - Eztanda egin arte 3
 Cerv, Leintz 2 - Adelaida Haizea 2
 Iluna Taberna 6 - Insert Coin 8
 Strauss 1 - Ganbelas 9
 Bayer Leintz 1 - Los Dalton 0
 Kriskibalda 4 - Fosforos 10
 Astoen Villa 1 - Salenco y konpañia 0
 Bukanak 8 - Aterpe 7

B taldea

Totem 2 - Pub People 4
 Sum. Ugarte 7 - Trikiti 3
 Txeyenex 3 - Nuevo taberna 11
 Uglys Txinato 2 - La Banda 5
 Ezkiñako Hontzak 3 - Danok Lagun 3
 Monterey taberna 0 Tovarixt 1
 Los Dimy 3 - Arrasate Zoo 1
 Petroleros 7 - No Comment 3
 Pepelus 1 - Anbotoste 0
 Orkatz 5 - Berango ukaldeak 5


C taldea

Baneuko 1 - Foto Imagen 0
 Orlando piratas 7 - Koka juniors 4
 Irati STS 3 - Frantziskanner 4
 Equis BTR 2 - Jotakabau 1
 Potrosorri 4 - Txoko taberna 3
 Autos Muru 4 - Exc. Lete 3
 Perrahotsa 5 - Artzankos Udalaiz 4
 D.K.B 3 - Leya 8
 Nabarros 1 - Bodisca 0
 Lorategi potroak 3 - Ke Oxtias 3

D Taldea

Resakas 0 - Sukar 1
 Mikelos 3 - Argi ibili 6
 Kakajauri 0 - Lautherbrunnen 1
 Motz 4 - A.C Surcos 9
 MSM Ingenier 8 - Ojo Avisore 3
 Borrock'n Roll 7 - Teodolito 4
 D. A Iritz 3 - B.Z sistemas 3
 Sokoakoak 2 - Los heredia 1
 Elisabeth 4 - Tronkoteak 3

ARRASATEN



Umeentzako oinetakoak eta berezitasunak

Zerkaosteta, 15
 Tfnoa: 79 61 13

Epelde

- Estudioa
- Ezkontzako erreportaiak
- Bideoa
- Argazkiak

Iturriotz, 24
 Tfnoa: 79 19 71

Maixu Arano, 8
 Tfnoa: 79 26 23



Umeentzako moda

Ferrerias Kalea, 34
 ARRASATE
 Tfnoa: 79 97 86



GIZON ETA EMAKUMEAREN MODA

Otalora z/g
 Tfnoa: 79 20 50
 ARRASATE



ASTEBURU HONETAN

Larunbata 11

Zaldibar

- 8.50 Orlando Piratas - Artzankos Udalaizt
- 10.00 Irati STS - Pub People
- 11.00 Sum. Ugarten - Ke Oxtias
- 12.00 Nuevo taberna - Totem
- 13.00 Autos Muru - Mikelos
- 14.00 Argi Ibili - Los Dimy
- 15.00 Pepelus - Hirei
- 16.00 Trikiti - Zotz
- 17.00 Fosforos - Petroleros
- 18.00 D.A Iriztu - Los Heredia
- 19.00 AC Surcos - Sokoakoak

Igandea 12

Zaldibar

- 8.50 Equis BTR - Perrahotsa
- 10.00 Zuloak - Ojo Avisore
- 11.00 Adelaida haizea - Ganbelas
- 12.00 MSM Ingenier - Lorategi potroak
- 13.00 Bukanak - Cerv. Leintz

Bigarren fasean kontutan hartu beharrekoak

Martxoaren 11n hasiko da bigarren fasea, zazpi aste iraungo ditu eta apirilaren 8-9an etena egongo da Aste Santuak direla eta. Fase honetako azken neurketa apirilaren 29-30 aste-bukaeran jokatu da. Lehen faseko arauak bere-berean jarraituko duten arren, berrikuntzarik ere bada. Faltetan baloia eskuz ikutzea edo jokalaria bat lurrera botatzea falta zuzenaz zigortuko da. Gainontzeko faltak ez zuzenak izango dira. Urratsak bost izango dira. Atezainari gurata eta geritik behera baloia eman ezker eta honek eskuarekin ikutzen badu, falta ez zuzena izango da hartzen duen tokitik. Area barrutik alboko sakeak ateratzekoan baloia atezainari ematen bazaio eta eskuarekin hartzen badu,

falta ez zuzena hartzen duen tokitik. Hankaz urruntzen badu ez dago faltarik. Kanporaketak 2 edo 5 minutukoak izan daitezke eta baita partidu osoako ere. Jokalari bat partidu osorako kanporatzen badute, ez dago bere orde besterik inor kantxaratzeko aukerarik. Kanporaketen ondorioz taldea lau jokalariz geratuko balitz, lau atezaina barne, kalera joango litzateke hori taldeori. Cornerrak, alboko sakeak bezala, eskuarekin ateratu behar dira eta, bukatzeko, ezinezkoa izango da ordularia eskumuturrean eta antiojuak aldean dituzula jokatzeko. Antiojuen araua, dena dela, ez dago guztiz zehaztuta baina ordulariarekin jokatzeko ezinezkoa da. Arau hauekin zorrotzak izango dira antotzaileak.

VE ECUADOR

Bidaiak

Bidaia zoragarri bat irabazi nahi baduzu, har ezazu parte ATBketan lehiaketan Ez galdu aukera!

Kontzeziño, 2
ARRASATE
Tfnoa: 79 14 06

YOSU HERMIK
VENTANAS AISLANTES S.L.



Kalitate gorena lehiaketan

LANTEGIA ETA ERAKUSKETA

Kataide poligonoa, 4. pabilioia. Tfnoa: 77 01 57 ARRASATE

● Melita Talovic

Bosnia bihotzean

Bi urte pasatu dira hainbat bosniar Eskoriatzara etorri zenetik. Zelan pasatzen diren urteak! Askok gogoan izango duzue iritsi ziren egun hura, atzo etorri zirela dirudi. Baina urteak pasa egin dira eta denbora horretan bosniar hauen egoera ere aldatu egin da. Lastimaz, gauzak aldatu ez diren toki bakarria Bosnian izan da.

– Biatoristen etxean bizi eta gero orain etxebizitzetan bizi zarete, ezta?

– Bai, orain familia bakoitza etxe baten bizi da eta batzuk, gainera, lanean hasi gara. Bi urte terdi pasatu dira etorri ginenetik eta zera ikusi genuen, ezin genuela inoren kontura bizi izaten jarraitu. Ez dakigu Bosniako gerrak zenbat urte iraungo duen eta jendeak ezin gaitu urte guzti horietan mantendu. Horregatik, lana bilatzen hasi ginen eta batzuk topatu egin dugu. Horrez gain, herrian hobeto integratzeko etxebizitzetan bizi gara. Sei familia gaude eta bakoitza etxe baten bizi da, denera bost pisutan, bi familia batera bizi dira-eta.

– Zenbatek topatu duzue lana?

– Lau lagunek lan tempo-

rala dugu eta horrez gain, emakume batzuk etxeetan egiten dute lan, etxekolanak egiten. Orain, gainontzeko herritarrak bezalakoak gara, edozein arazo badugu udaletxera jotzen dugu eta behar izanez gero, laguntzaren bat ematen digute. Seguru dugun bakarra Aseguru Soziala da, lan egin ala ez hori badaukagu.

– Zuk zeuk non egiten duzulan?

– Nik LKSn egiten dut lan, urte bat baino gehiago daramat bertan eta oso pozik nago. Arkitektoa naiz baina hemen delineante edo aparejadore lanak egiten ditut. Askok ikasi dut LKSn, batez ere orde-nagailuz marrazten.

– Zer iruditzen zaizu hemengo kooperatiba mugimendua?

– Kooperatibismoa ez da berria niretzat. Bosnian lan egiten nuen enpresaren sistema, gutxigorabehera, antzerakoa zen. Gainera, Jugoslavia-ohiean kooperatiba asko zegoen eta hemengo antzera funtzionatzen zuten.

– Bosniako gerraz ahaztuaz goaz. Zein da bertako egoera?

– Momentuan tregua dago, maiatzaren 1era arte iraungo duena, baina ni ezkorra naiz. Gerrak jarraitu egingo duela uste dut.



– Baduzue hartu-emanik han geratu direnekin?

– Bai, ahizta Mostarren bizi da. Gutxi hitzegiten dugu berarekin, telefonoz hitz egitea arriskutsua da-eta, baina zera esaten digu betik: oraindik goiz dela itzuleraz pentsatzen hasteko; hori askotan esaten digu.

– Herriminik bai?

Jakina, baina oraindik lehen zegoen moduan imaginatzen dut nire herria. Bizi nuen bizitza ere faltan botatzen dut.

– Sarajevon bizi zinen, zer dakizu han zenuen etxeaz?

– Dagoeneko ez daukagala, baina egunen batean berriz izatea espero dut.

– Gogorra izan behar du itzultzea eta hutsetik hastea.

– Bai baina nik ez diot beldurrik bizitza gogorrari, diru gutxi edo janari gutxi edukitzeak ez dit axola, pertsonen arteko gorrotoak beldurtzen nau. Itzuli nahi nuke eta lagunekin elkartu, baina ez dut nahi bertara joan eta pertsonen artean gorrotoa dagoela ikustea.

– Merezi zuen Eskoriatzara etortzea?

– Bai. Bosniatik irtetea erabaki nuenean Eskoriatzara etortzea tokatu zitzaidan eta lekurik onenera etortzea suertatu zaidala uste dut. Oso pozik nago hemen.

– Bi urte hauetan hartuko zenuen ohitura berririk, ezta?

– Bai, mendira joatea. Lehen gutxi joaten nintzen eta ez hemen joaten zaretan moduan. Bosnian mendira joaten ginen baina gehinetan kotxez eta eguna pasatzera. Hemen, berriz, ibiltzeko eta paisaia ikusteko joaten naiz. Inguruko mendi guztietan izan naiz baina Atxorrotz dut gogokoan.

● **“Oraindik itzuleraz pentsatzen hasteko goiz dela esaten digu ahiztak”**

Badakigu kirola egiten?

Itxaro Zubillaga

Arrasatearrok nahikoa kirol egiten dugu? Badakigu zer den kirola eta zer gehiegikeria bereizten? Galdera hauei guztiei erantzuna bilatzeko asmoz, Athlon enpresako kirol teknikariengana jo dugu. Athlonen pertsona kualifikatuekin egiten dute lan; hiru medikuk, bi ATSk, Heziketa Fisikoan lizentziatutako zazpi lagunek eta heziketa fisikoko teknikari bik osatzen dute enpresa, 14 lagun guztira.

NOLA EGIN KIROLA


Jende gutxi daki kirola ondo egiten, gehiegikeriak egiten ditugu sarri-sarri eta kirola dela pentsatu. Pasio bat ematea, futbol partidua jokatzea, mendi irteera bat

egitea, dena da kirola, baina ariketa fisiko hauek *zelan* egiten ditugun eta zein jarraitkortasunez, kontutan hartu beharreko datuak dira.

Athlonekoen iritziz, ez dago kirola egiteko errezeta magikorik baina zenbait aholku gogoan hartu beharrekoak dira. "Lehenengo, garrantzitsua da geure gorputza ondo ezagutzea, noraino heltzeko gauza garen jakitea. Horretarako azterketa medikua pasatu behar dugu, gure gaitasunak ezagutu ahal izateko. Kirolaren garrantzia ulertu, kontzientziatu; apurka-apurka hasi; hasieran lagun talde batekin hasten bada hobeto, eta jarraipena izan. Egunero ordu laurden bat eginez gero nahikoa litzateke. Kirola ere etxe zabala dela ez da ahaztu behar, era guztietako kirola dago eta". Kirola zer den eta zer ez den ari garen honetan, Arrasateko kirol egiturari gainbegirada emango diogu. Arrasateko kirola lau esparrutan dago banatuta, kirol eskolarra, Arrasate Kirol Proiektuan oinarritua; kirol federatua, aisiadirako kirola eta 3. adinari zuzendutako kirola.

KIROL ESKOLARRA

Arrasateko kirol eskolarra Arrasate Kirol Proiektuan oinarritzen da. Arrasate Kirol Proiektua duela bost urte jaio zen, Udalak bideratzen du eta Athlon arduratzen da Arrasateko ikastetxe guztietako kirol eskolarra antolatzeaz eta lan tekniko egiteaz. Lan tekniko lehena mailatik zortzigarren mailara bitarteko neska-mutilei dago zuzendu-



Eskalada ere kirolen artean beste bat da.

ta. Lehen eta 2. mailako umeekin psikomotrizitatea lantzen dute. 3. eta 4. mailakoekin aurre-kirola, 5. eta 6. mailakoei teknikoki eta taktikoki kirol desberdinak erakusten dizkiete eta azkenik, 7. eta 8. mailakoek gustoko duten kirola aukeratzen dute. Kirol bakoitzean kirol elkarteetako monitore kualifikatuak dituzte. Astean bi saio izaten dituzte neska-mutilek eta larunbateretan txapelketak eta jokuak. Arrasate Kirol Proiektuko ekintzak ikasturtea irauten duen hilabeteetan egiten dira, dena dela, udara partean neska-mutilek kirola egiteko aukera izan dezaten, Udara-

ko Kirol Eskolak antolatzen dituzte. Kirol proiektu horri esker, lehen mailatik 8. mailara bitarteko ikasleen %50ak kirol eskolara egiten du. Arrasate Kirol Proiektua eredu izan da Gipuzkoan. Proiektuaren bidez, ikastetxe guztiak kirol programa bateratua, begirale kualifikatuak eta eskaldunak izatea lortu da. Proiektu horretatik kanpo gimnasierritmikoa eta arte martzialak baino ez daude, ezagarrri bereziak dituzten kirolak direlako, behar bada.

FEDERATUTAKO KIROLAK

Kirol federatuek herrian

K

kirola egiteko norberak bere gorputza ondo ezagutu behar du, noraino heltzeko gauza den jakiteko

egiten ari diren lana izugarria da; Arrasaten 26 kirol elkar-te daude eta 800 bat federatu. Federatutako kirolak pertsonen denbora libretea betetzeko espektakulu bihurtzen ari dira; astebukaerero Iturri-pe zein Musakolako kiroldegietan eta Atxabalpen mugitzen den jendea batuz gero, herrian pisu handia duen kirol mota dela esan dezakegu. Baina horrenbeste talde izatea eta bakoitza bere aldetik ibiltzeak badu desabantailarik. Taldeek duten arazo ekonomiko larria litzateke azpimarragarriena, bestetik talde hauen atzetik eta ezkutuan jende asko mugitzen da, delegatuak, laguntzaileak eta gero eta zailagoa da taldeetan lan egiteko gertu dagoen jendea topatzea. Era berean, talde guztiak entrenatzeko jende kualifikatua eta formakuntza zabala duena bilatzea ere gero eta nekezagoa izaten da.

AISIALDIRAKO KIROLA

Kirolaz gozatzeko edo osasunarengatik egin; hau da, denbora libretea betetzeko kirola. Kirol multzo honetan herri mugimendu aipagarria dugu Zaldibar txapelketa, izan ere, 1.225 jokalaria mugitzen duen herri txapelketak merezi du aipamenik. Mantenimendu gimnasia edo jendeak bere

kasara egiten duena ere atal honetan sartuko genuke. Kirol mota horrek jarraitzaile franko ditu herrian baina kirola gure kabuz egiten dugunean zenbait ohitura aldatu behar dugu. Zer egiten ari den kon-turatu behar du jendeak eta kirolari buruz ahalik eta infor-mazio gehien izan. Kirola egi-ten hasi aurretik berotze ari-ketak egin behar direla jakin behar du jendeak eta pultsoa hartzen jakitea ere komeni-garria izango litzatekeela, bes-te gauza batzuen artean. Gaz-tetxoenei erakusten zaie gau-za hauek Arrasate Kirol Proiektuan baina pertsona hel-duagoak eta, batez ere, 30 urtetik gorakoak noraino hel-tzeko gauza diren jakiteko, norberaren gaitasunak eza-gutzeko azken finean, azter-keta medikua pasatzea ahol-katzen dute adituek eta kirol teknikarien aholkuak jasotzea ere bai.


3. ADINEKO KIROLA

3. adineko kirolaren mul-tzoan ikusten da hutsunerik handiena Arrasaten, ez dago ezer adin horretako pertsoni zuzenduta. Egia da jendea pasiatzen ikusten dela baina nola kontrolatzen dituzte euren gaitasunak? Zein laguntza mo-ta dute kirola ondo egiteko? Alde horretatik, ikastaro pre-mia eta kirol teknikari behar-rra ikusten da, eta gero eta per-sona nagusi gehiago dagoe-la gogoan harturik, herriko nagusientzat zerbait egiteko premia ikusten da Arrasaten.

KIROL INSTALAKUNTZAK


Kirol instalakuntzei dago-kienez, azpiegitura aldetik Arrasate oso ondo dagoela esan daiteke, egituran, berriz, konponketa batzuk egiteko premia dago. Une honetan falta dena atletismoko pista-k eta ganorazko frontoia izan-go lirarteke eta, era berean, ditugun kirol instalakuntzetan zenbait berriketa.

Kirola egiteko arrazoiak




Oinarria: Kirola 446k egiten dute

Kirola egiteko lekuak



Oinarria: Kirola 446k egiten dute

Kirola aisialdian



Athlon taldeak egindako azterketa batetik ateratako datuak dira. Orokorrean hartu ditugu, hau da, zehaztu barik baina herritarrok kirolarekiko zein jarrera dugun gaitetik ikusteko balioko dizue.

K
irolak ez du adinik, gogoan izatea nahikoa da zure gorputza mugimenduan jartzeko



Urbina-Maltzagak irabazi egin beharko du domekan.

Urbina -Maltzagak partidu erabakiorra jokatu du domekan

Urbina-Maltzagak Trébol Gijón taldearen kontra neurtuko ditu indarrak domekan arratsaldeko 6etan Iturripen. Arrasateko taldearentzat partidu erabakiorra da eta jaietsiera fasetik kanpo geratuko bada, irabazi egin behar du derrigorrez. Dena dela, aurrean izango duen taldea multzoko liderra da, hau da, talde sendoa eta esperientzia handikoa, beraz, ez dute lehia samurrik izango arrasatearrek. Trébol Gijón taldean MacDowell amerikarrak jokatu du eta Ponferradaren arteko partiduan epailearekin tira-bira batzuk izan zituelako lau partidurako zigortuta dagoenez, ez du Iturripen jokatzetik izango. Alde horretatik, abantaila txiki bat izango dute Txus Brizuelaren mutilek. Abantaila hori aprobetxatzen jakingo duten ala ez beste kontu bat izan-

go da. Urbina-Maltzaga taldean Alvaro Coca eta Saez De Viterik ezin izan dute asteko entrenamendu guztietan parte hartu ikututa egon direlako, hala ere, domekarako sasoiaren egongo diren itzaropena dago. EBA ligan bost partidu baino ez dira falta lehen fasea bukatzeko eta Urbina-Maltzagak, 29 punturekin, sailkapeneko 11. postua betetzen du. Lehenengo sei postuetan sailkatzen diren taldeak igoera fasea jokatu behar dutela kontutan hartuta eta behelaldean dauden sei taldeek jaietsierakoa, Urbina-Maltzagak 7. edo 8. tokian bukatu beharko luke fase hori, hasierako helburuak beteta ikusteko. Kontuak kontu, falta diren partiduak hil ala bizikoak izango dira Urbina-Maltzagarentzat. Taldearen etorkizuna jokuan egongo da eta Arrasateko

mutilek ezin dute kale egin. Behin baino gehiagotan erakutsi dute denboraldian EBA ligan jokatzeko maila badutela. Horrela izanda, une estu hauetan ere EBA ligako jokalariek direla erakutsi beharko dute.

Bestalde, martxoaren 15ean, eguaztenez, Urbina-Maltzagak eta Gazteizko Vital Kutxak neurtuko dituzte indarrak Iturripen arratsaldeko 7etan. Neurketa ALMEN ikastolako batxilergo orokorreko 2. mailakoek antolatu dute ikasbidaiarako dirua eskuratzeko. Sarrerak, dagoeneko, salgai daude, aurrez erosita 400 pta. eta takilan 500 pta. Apirilaren 5ean, asteartez, berriz, "Araba Euskararen alde" Taugres Basconia eta Urbina-Maltzagaren arteko neurtuak jokatu da Araba Pabillioian.

LABURRAK

Trialsin txapelketa Udalan

Gipuzkoako trialsin txapelketa egongo da jokuan Udalan Arrasateko Motozale Elkarteak antolatuta. Domekan Goizeko 10.30etan bizikleta gainean euren trebezia erakusteko aukera izango dute partehartzaileek. Bizikletarik ez dutenentzat, bertan izango direla esan digute antolatzaileek. Izena emateko epea zapatuan goizeko 10.30ak arte egongo da zabalik.

Zikloturistak

Arrasateko zikloturistek denboraldiko bigarren irteera egingo dute domekan. Ibilbidea: Arrasate, Oñati, Udana, Urretxu eta Arrasate, 54 kilometro guztira. Irteera goizeko 10etan izango da Monttoretan irtena.

Txirrindulariak

Dorletako Ama taldeko jubenilek eta bigarren mailakoek Eibarren izango dute denboraldiko lehen lasterketa zapatuan. Lehen mailako kadeteek Azpeitiako lasterketan hartuko dute parte eta bigarren mailako kadeteek Beasainen.

Pilota

Arrasateko paleta pilotariek, Amurrioren kontra jokatu dute zapatuan goizeko 11.30etatik aurrera. Eskuz banaka, Aretxabaleta eta Arrasate izango ditugu aurrez aurre Aretxabaletako Iturrigorri frontoian igandean goizeko 11etan.

PENALTIAK

● **Mondrako emakume-ek, itxuraz behintzat, partidu samurra dute domekan arratsaldeko 4.30etan. Mondrak eta Aloñamendik neurtu dituzte indarrak. Mondrak hemezortzi partidu irabazi ditu, bi berdindu eta bost galdu eta 56 punturekin 3. tokian dago. Aurretik Lagun Onak 65 punturekin eta Elgoibar 60ekin ditu. Aloñamendi azken bigarrena da 15 punturekin eta bost neurketa baino ez ditu irabazi. Saikapenari begiratu gero, Mondrak ez luke arazorik izan behar Oñatiarrei irabazteko. Oñatin jokatu tako partiduan Mondrak 0 eta 8 irabazi zuen.**

Arrasate Eskubaloi taldea eta Betacar aurrez aurre

Arrasate Eskubaloi taldeak ezin du huts egin Lanza roteko Betacar taldearen kontra. Neurketa zapatuan jokatuko da arratsaldeko 7.30etan Iturripen. Arrasatek etxeko partidu guztiak irabaziko balitu, lehen mailan jarraituko luke; baina galduz gero, beltz jarriko litzaioteko etorkizuna. Joan zen asteburuan Alcobendas taldearen kontra 2 golgatik galdu zuen. Zapatuan ezin da hori gertatu. Betacar taldeak 9 puntu ditu eta saikapeneko hirugarren tokian dago; lau partidu irabazi ditu, bakarra berdindu eta hiru galdu. Arrasatek, ostera, 6 puntu ditu, hiru neurketa irabazi ditu eta lau galdu. Golei dagokienez, 173



Imanol Alvarezren mutilek partidu erabakiorra jokatuko dute zapatuan.

sartu ditu eta 161 jaso. Entrenatzaileak zaturako ia jokalaririk guztiak izango ditu gertu bi izan ezik. Riky lesionatu egin zen eta denboraldi osozko baja izango da, Iraola ere zalantzan dago ukon-

doan min hartu zuen eta azken unerarte ez da jakingo jokatzeke moduan egongo den. Bestalde, Josu Arabaolazak eta Kortabarriak gaituak dute lesioa eta normaltasunez entrenatu dute astean.

EMAITZAK

Futbola
3. maila: Mondra 1- Aurrera 1.
2. erregionala: Urki 2- Mondra 2.
Emakumeak: Antoniona 1- Mondra 2
Jub Ohorezko Liga: Mondra 3 - Beti onak 2
Lehen kadeteak: Ordizia 2- Arrasate 1.
2. Kadeteak: Arrasate 1 - Eibar 0.
Infantilak: Illintxa 0- Arrasate 1
Hurrengoak:
3. maila: Basconia - Mondra. Larunbata. 5etan.
2. erregionala: Mondra - antzuola. larunbata. 4.30etan.
Emakumeak: Mondra - Aloñamendi. Igandea 4.30etan.
Jub Ohorezko Liga: Añorga - Mondra. Larunbata. 4.30etan.
Lehen kadeteak: Arrasate - Aurrera. Igandea 10etan.

Bigarren kadeteak: Almen - Arrasate. Igandea 11etan.
Infantilak: Arrasate - Ordizia. Igandea. 11.45etan.

Saskibaloia
Lehen maila: V. Costeiro 85- Urbina Maltzaga 68
Senior S-23: Urbina Maltzaga 49 - Loyola 75
Juniorrak A: Ordizia 71 - Urbina Maltzaga 53
Juniorrak B: Pasaia 50 - Urbina Maltzaga 49
Senior Emak: Urbina maltzaga 52 - Ondarraitz 26
Kadeteak A: Urbina Maltzaga 56 - Ordizia 53
Kadeteak B: Urbina Maltzaga 37 - Laskorain 91
Kadeteak Emak A: Ibai Ilzeoa 32 - Urbina Maltzaga 22
Kadeteak Emak B: Etxadi 30 - Urbina Maltzaga 40
Hurrengoak:
EBA Liga: Urbina Maltzaga - Trebol Gijon. Igandea 6etan. Iturripen.

Juniorrak A: Urbina Maltzaga - Iraurgi. Igandea. 11.30etan.
Juniorrak B: Urbina maltzaga - Irurok. Larunbata. 4etan.
Kadeteak A: Aldapeta - Urbina Maltzaga. Larunbata 4. 45.
Kadeteak B: Amigos - Urbina Maltzaga. Igandea. 11.45etan.
Kadeteak Emak A: Urbina Maltzaga - Amigos. Larunbata. 12etan.
Kadeteak Emak B: Zarautz - Urbina Maltzaga. Igandea. 11etan.

Eskubaloia
Lehen maila: Alcobendas 23 - Arrasate 21
Lehen Territoriala: Arrasate 24 - La Salle 24
Jubenilak: Arrasate 20 - Hernani 9
Hurrengoak:
Lehen maila: Arrasate - Betacar. Larunbata.

7.30etan. Iturripen.
Lehen territoriala: Ormaiztegi - Arrasate. Larunbata. 6etan.
Jubenilak: Legazpi - Arrasate. Larunbata. 7.30etan.

Futbitoak
Lehen maila: Arrasate 2- Autonomia 3
Arabako territoriala: Arrasate 5- C. Isabel 8.
Hurrengoak:
Lehen maila: Jarrileros - Arrasate. Larunbata. 8etan. Portugalete.
Arabako Territoriala: Calasanz - Arrasate. Larunbata. 7etan. Gazteiz.

Rugbya
Lehen maila: Arrasate 5- Ordizia. 20
Jubenilak: Arrasate 51 - Urretxu 3.
Emakumeak: Elorrio 102 - Arrasate 0
Hurrengoak:

Lehen maila: Getxo - Arrasate. Larunbata.
Jubenilak: Arrasate - Ordizia. Larunbata. 4etan. Garagartzan.

Pilota
Ohorezko Liga
Paletan: Aramaioa 35- Arrasate 15
Eskuz banaka: Arrasate 14 - Aretxabaleta 18
Deba Arroa
Infantilak: Arrasate 15 Oñati 18
Jubenilak: Arrasate 22 - Oñati 9
Nagusiak: Arrasate 12 - Oñati 22
Hurrengoak:
Peletan: Arrasate - Amurrio. Larunbata. 11.30etan Musakola.
Eskuz banaka: Aretxabaleta - Arrasate. Igandea. 11etan. Iturrigorri frontoian.

URRATS
AHOLKULARITZA
 GARIBAI, 3
 Tfnoa: 79 87 74
ARRASATE

IBARRA
Garajea S.L.

EBRO NISSAN
Garajea
Automobil-konponketa
Garabi zerbitzua

• ARTEA •
Eskulanak eta lientzoak
ENMARKAZIOAK
Laminak, Izpiluak,
Margoak
 Ferrerías, 11 Tfnoa: 77 10 95
ARRASATE

OSORIK
PUB
 Ignazio Zuluaga, 4
ARRASATE

Zirimiriak atseden egiten duenean

**Rosi
Zarraoa**

(Argazkirik onena helduen mailan)



Hitz geldikorrak

Poesia, laztandutako hitz jariora

*barneko saminaren odol ixurketa
gozamenaren idazkin dardartia
ezin egonaren penazko ihesbidea
itxaropena duenaren ametsetazko otoitza.*

*Azkenean, nire ustea, ondoan izango gara
zugatik hau idatzi, zugatik hau adierazia
ta kale bustiei so, faroletako argien euriari begira
zuri itxoiten aurkituko nauzula*

*Chelsea hoteleko istorio goibelen bitartez deituko dizudala
berhala nere eskugainean, nere bihotzeko kabian
izango zarela
goiz argiak uxatuko zaituen arte.*

**Jose Luis
Guenaga**


(Poesia akzesita helduen mailan)



*Denboraren hegoek naramate
geraezinezko hegoak
bizitzako pasabideetan zehar,
ta azkarregi dihoazkit
ezin ditut lotu ta gelditu!
ta egindako bidea nahasia dago
etorkizuna are lanbrotsuagoa
maindire opakoen sabelean gordea dirudi.*

Z E R N A H I A G O ?

Jon Garagorri "Optika Garagorri" dendakoa



- Zerk bultzatu zaitue Mendia jauregia zahar-berri- zera? Aitarena zen eta oso leku ona zela pentsatu genuen.
- Zein mendetakoa da jauregia? Ez dut gogoratzen.
- Erabiltzen duzu lentila edo betaurrekorik? Ez.
- Astebeterako lentilak errentagarriak dira? Erabilpenaren arabera.
- Zenbat betaurreko duzu salgai? 3.000tik gora.
- Zein adinetan dago ikusmena galtzeko arrisku gehien? Umetan izaten da arrisku gehien.
- Jende askok eskatzen ditu koloretako lentilak?

Orain arte oso gutxi, oso garestiak ziren eta; baina gero eta gehiago saltzen ditugu.

- Roldán optikara etorriko balitz, zer gomendatuko zenioke? "Gafas de Tempestad" izenekoak, elurretarako antiojuak.
- Zein irрати kate entzuten duzue lanean ari zaretenean? "Hilo Musikala" entzuten dugu.
- Musika talde bat? Bruce Springsteen.
- Kolonia bat? "Cacharel".
- Zer izan gura zenuen txikitari? Errealeko futbolari.
- Egon zara inoiz igarile batean? Ez.
- Urteko egunik politena? Oporrak hartzen ditudan eguna.
- Zer edaten duzu jatorduetan? Ura eta ardoa.
- Aktore bat? Gary Cooper.
- Zein kolorekoak izango liriateke zure ametsetako neskaren begiak? Ezti kolorekoak.
- Emakumeen Nazioarteko Eguna izan dela eta, zer esango zenieke? Aurrera jarrai dezatela, bide luzea geratzen zaielako berdintasunera iristeko.
- Aurten joan zara eskiatzera? Bai, Astunera.
- Autoa, kalean ala garajejan? Garajejan.
- Arrasate edo Bergara? Biak.
- Arrasateko kalerik politena? Erdiko Kale.
- Egin duzu Aste Santurako planik? Eskiatzeko asmoa daukat.

LABURRAK

Egaña eta Lertxundi Amaian

Igande honetan, hilak 12, eta Korrika Kulturala egitarauaren barruan, artista handi biren emanaldiak izango ditugu Arrasaten bertan, Amaia antzokian.

Arratsaldeko 7.00etan Andoni Egaña eta Benito Lertxundi izango dira eszenatokian. Andoni Egaña bertsolariak bere "Tximeletak Sabelean" diska lehen aldiz aurkeztuko du eta egundaino sekula ez moduan, musika talde batekin nahasi kantatuko du.

Dena dela, hurrengo astean ere izango da zer gozaturik. Martxoaren 17an, Andoni Egaña eta Benito Lertxundik emanaldi berberak eskainiko dituzte Amaia Antzokian.



MAHAINGURUA

Mapa erakusketa barne

Gaia: Europako maparen aldaketa azken urteotan

- Alemania bateratua, Sobietar Batasunaren desintegrazioa
- Jugoslavia, Txekoslovakia, etab.
- Zeintzuk izan daitezke etorkizuneko aldaketak?

Hizlariak

- Josu Tellabide (Aranzadi Elkarteakoa)
- Luis Fernandez (Euskaldunon Egunkariako kazetaria)

Noiz

Martxoaren 15ean, arratsaldeko 7etan

Non

Monterron Jauregian

Datozen "folkiak"

"NUEVO MESTER DE JUGLARIA"

1969an ekin zioten euren karrera musikari eta estatu-ko folk talderik zaharrena da. Kantuak egiteko orduan, etnografiaren ikerkuntza metodologia kontsultatu eta kantari herrikoiekin hitz egiten dute. 25 urte hauetan 1.000 kontzertutik gora egin dituzte bai estatu osoan eta baita Europako zenbait lekutan ere. Eskaintzen duten ikuskizuna jai-girokoa da eta adin guztietako jendea erabat inplikarazten dute. 1971n kaleratu zuten lehen diska ("Romances y Cancioneros Populares") eta geroztik, beste hamasei kaleratu dituzte. Taldea Gaztelako zazpi lagunek osatzen dute.

"EL BOSQUE"

Zortzi zaragozarrek osatzen dute folk talde gazte hau. Duela hiru urte hasi ziren instrumentuak asintzen eta joan zen urtean, "Villa de Bilbao" saria etxeratu zuten. Sari horri esker, euren lehen elepea grabatu zuten. Zuzeneko kontzertuetan oso talde gogorra eta indartsua omen da. Folk eta rock musikari ikutu latinoak eta funkak ematen dizkiote, eta musikariak, era horretan, erabat zorutzen dira eszenatokian.

"NA LUA"

1980an sortu zen talde



"Liberty Cage" talde londondarra, 1991an sortu zen desegindako "The men they couldn't hang" taldetik.

galiziar hau. Geroztik, talde honek jotzen dituen kanten helburua, musika tradizionalaren berregiketara eta musika berrien sorkuntza da. Sustrai galiziarak, portugesak eta zeltikoak ditu euren musikak.

"OYSTER BAND"

Bost lagunek osatzen dute 1985ean sortu zen talde ingeles hau. "Oyster Band" taldeak goitik behera aldatu zuen material tradizionala eta rock eta folk abestien gainean egindako interpretazio propioa eta indartsuari esker, oso kritika onak izan dituzte. Hori bai, euren konposizioak guztiz propioak dira, "The Oxford Girl", "Too Late Now" eta "Lost and Found" kasu. 1986an lehen elepea atera

zuten, "Step Outside" eta azkena berriz, aurtien bertan, "Trawler". Guztira zotzi diska dituzte merkatuan.

"LIBERTY CAGE"

"The men They Couldn't Hang" taldea desegin zenean sortu zuten 1991n talde-ohi horretako bi lagunek "Liberty Cage" talde londondarra. 1993. urtea talde guztien inbidia zen oinarri sonoroa lantzen eman zuten eta oso gutxitan eskaintzen dituzte zuzeneko kontzertuak. Euren lehen diska, "Sleep Of The Just", 1993an grabatu zuten.

"ROCK, SALT & NAILS"

1990ean sortu zuen Paul Jhonston kantari eta kitarrajoleak talde eskoziar hau.

Gizon hau, taldea sortu baino lehen, Edinburgoko hainbat bandetako partaide izan zen, baina Shetland irltako bizi-modua eta musika deskubritu zuenean, bere taldea sortu zuten. Bost lagunek osatzen dute taldea. 1993an lehen diska kaleratu zuten, "Waves". 1994an Erresuma Batuan sekulako bira egin zuten 30 kontzertutik gora eskainiz.

"THE UKRANIANS"

Talde hau duela urtebete baino gutxiago sortu bazen ere, 1988. urtera jo behar dugu bere jatorria aurkitzeko. Urte hartan, "The Wedding Present" izeneko pop talde britaniko batek, ukrainiar kanten bilduma bat grabatu zuen. Hain izan zen handia bilduma haren arra-

ITSASKI

ARRANDEGIA

Arrain freskoa
eta jaki izoztuak

Uribe Auzoa
ARRASATE
Tfnoa: 79 98 94



PEUGEOT

Salmenta eta
zerbitzua

IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g. Tfnoa: 79 99 61 ARRASATE

HIES EKIMENA

Astelehen, astearte
eta ostiral
5etatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99

Javi Hernandez

“Arrasate Folk 95” asteburuaren antolatzailea

kasta taldeko partaide batzuk taldea utzi eta “The Ukrainians” taldea sortu zutela. Duela gutxi, NIKE markak kontratatu zuen taldea telebistarako iragarki baten musika egiteko. Taldeak mundu osoan egin izan ditu birak.

“THE HACKNEY RAMBLERS”

Bost lagun londondarrek osatutako taldea da hau. “Cajun Dance Music” estiloko doinuak jotzen dituzte eta esaten duten moduan, euren kontzertuak jai bihurtzen dira.

“LA CUCINA”

Bost lagun italiar eta ingelesak osatzen dute taldea. “Chucheria” izan zen euren lehen diska eta Britainia Handian arrakasta handia izan zuen. Abesti instrumentalak dira euren berezitasuna. Tangoak eta vals-ak jotzen dituzte eta kanta batzuk, reagegikutua dute. Ingelesean eta italieraz abesten dute eta soinu freskoa eskaintzen dute.

“PENTANGLE”

Britaniar folkaren oinarritzko taldeetatik kontsideratuta dago. 1967an sortu zen taldea eta 1968an euren lehen diska merkaturatu zuten. Diska honek folk musikaren berripena ekarri zuen, blues eta jazz ikutuak zituelako. 1972an disketea aldatzeak, taldearen gainbehera ekarri zuen eta azkenean taldea desegin egin zen. Hamar urte ondoren, 1990ean, taldea berpiztu egin zen.

Javi Hernandezek 34 urte ditu eta bere bizitza musikak betetzen du. Duela 16 urte “Bizz Produzioak” sortu zuen beste lagun batzuekin batera. Estatuko nahiz

kanpoko taldeen kontzertuak antolatzea du lanbide, eta asteburu honetan izango den “Folk Asteburua” ere berak antolatu eta bultzatu du Udalaren laguntzaz. “Folk Asteburu” honi udaberririo-udaberririo jarraipena ematea da bere asmoa.

— Asteburu hau “Folk Asteburua” izango da. Zergatik aukeratu duzu folk musika eta ez beste bat?

— Arrasaten folk musika gehiegi entzuten ez denez, asteburu edo egitarau originala antolatu nahi izan dut. Joan zen udaran European zehar ibili nintzen eta erabat harritu ninduen herri oso batek urtero izaten den jaialdia antolatzeke egiten duen ahalegina ikusteak. Beraz, folk musika nire gustokoa denez eta “folkiak” rockeroak baino apalagoak izateak hona ekartzea errazten duenez, folk asteburua antolatzea bururatu zitzaidan.



— Zer aurreratu diezagu-kezu etorriko diren taldeei buruz?

— Denetarik egongo da. Alde batetik, sortu berri diren taldeak eta, bestetik, gaur egun folk hariaren inguruan goi-goian daudenak: “La Cucina”, “Liberty Cage” eta “Rock, Salt & Nails” kasu. Bestalde, talde tradizionalak ere etorriko dira, folk mobidant 25 urte daramatzaten tal-

deak; “Pentangle” nazioartean eta “El Nuevo Mester” estatuan, adibidez.

— “Folk Asteburua” antolatzean, izan duzu Udalarekin gorabeherarik?

— Hainbat

bider egin dut asteburu hau antolatzeke ahalegina eta badirudi, azkenean, amore eman dutela. Beste batzutan ez da hain erreza izan, “matxakatu” egin behar da... Gertatzen dena zera da: eurak kultura era bat bakarrik ikusten dutela, eta rocka eta folka ere kultura dira, eta ez bakarrik, orain arte pentsatu izan den moduan, Arrasate Musikal. Gaztetxea ere, kultura egiteko era bat da, baina ez da behar beste baloratzen. Komeni den kultura baino ez da bultzatzen eta gauzak neurtu egin behar dira: dantza antolatzen bada, ekintza horretan parte hartzen duen jende kopurua ikusi behar da, eta era honetako musika ekitaldiak antolatzen badira, zenbat jende joaten den ikusi behar da; gero konparatu eta dirua nola gastatzen den ikusi behar da. Bestalde, hor daukagu Amaia antzokia, obra faraoikoa... eta zertarako? Oso gutxi erabiltzen da eta gauza asko egin daiteke bertan.

“Folki”ak rockeroak baino apalagoak izateak erraztu egiten du hona ekartzea.”

beatriz

oinetakoak eta poltsak

Erdiko kale, 11
Tfnoa: 79 14 33
ARRASATE

M
ARENAZA

Altzariak
Diseinua
Apainketa

Bizkai, 1 ARETXABAETA
Tfnoa: 79 08 07


ARGI PLASTIC

• PVC eta Aluminioan egindako leihoak, atatak, manparak...
• Lantegitik zure etxera zuzenean

Eska ezazu aurrekontua konprometzu barik



Tailerra eta Bulegoa: Axeri, 3 Tfnoak: 77 11 30



toria, jende askok uste baino berriagoa den arren. Duela gutxi ingurune monumental eta historiko izendatu du Jaurlaritzak eta aurretik ere jende asko etortzen zen hura ikustera.

Antzinako euskal hilerrien eredura egindakoa da kanposantu hori, baina 1966an egin zen.

Proiektu hori egia bihurtu zuena Apotzagako abadea izan zen, On Anastasio Otadui, Mondraueko Iramendi baserriko semea. 1978an hil zen eta bere kanposantu maitate horretan bertan dago lurperatuta.


Idea teknikoa landu zuena ere mondrauetarra zen, Patxi Lopez de Goikoetxea arkitektoa.

Kurtzebarri, Atxorrotz eta Udalatxera, mendi denetara begira dago kanposantu borobila. 22 metroko diametroa eta barruko 423 metro karra tuak lau zatitan banatuta daude, beste horrenbeste bidexka tartean direla. Baserri bakoitzak bere saila eta estela ditu, antzinako euskaldunek moduan. Estela familiarena da eta hildakoen izenik ez du ipintzen.

Gainerako osagarrien artean, bi pila erromaniko eta, sar-

tu eta aurrez aurre, San Migel Goiaingeruaren estatua erromanikoa. Mahai borobil handi bat ere badago, harri bakarrean landua eta horri eusten bi alper-harri. Gizona, lana eta lurraren arteko harremanaren adierazle diren sinboloak. Gurutze eder bat ere ikusiko du Apotzagara hurbiltzen denak: Marindik eraman zuten hara. Gainerako osagarri denak berriak dira, 1966an eginak.

Atearen albo banatan jasotako hitzek ematen diete ongietorria bisitariei zein bertan geratzera eramaten dituztenei. Esaldi sinplea bezain sakona: "Gero arte".



retratua ez da zaharra, baina bertan ageri den kanposantuak badauka bere his-

- ☛ Bizitza
- ☛ Etxebizitza
- ☛ Autoa
- ☛ Etabar


**SEGUROS
BILBAO**

ONGI ETORRI,
konpainia onean
egoteak badu
abantailik.



Otalora Lizentziatua, 5

20.500 ARRASATE

☎: 79 70 67




OPEL VECTRA



AIRBAG - ALBOETAN BARRA BABESGARRIAK - SEGURTASUN-UHAL AKTIBOAK - ECOTEC MOTOREA

OPEL VECTRA MERIT BERRIA, BERE PREZIOA MERITO HUTSA DA.

**10.
URTEURRENA**



**ZURE ZAIN GAUDE
TALLERES**

OLA

Araba Etorbidea, 3 (ESKATU pabilioia)
Tfnoa: 79 05 86 **ARRASATE**
Zerbitzu Ofiziala ARRASATEn


Olabarrena auzoa, z/g. Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46.
BERGARA (Gipuzkoa)

OPEL BANATZAILE OFIZIALAK, ESPERIENTZIAZ ONENA

• ESAERA ZAHARRA •


“Marti kakatzu,
marti kakatzu,
aprile urrezkoan
sartu nazazu”

• JEROGLIFIKOA •



Nor falta da gure artean?

• GURUTZEGRAMA •



J. B. AGORRIA

Horizontalak 1. Xabier, Mondrako atzelaria. 8. Amodio. 10. Euskal Dantzarien Bil-tzarra. 11. (Ald.) Zalantza adierazteko partik. 12. Etorkizuna igartzeko karta multzo. 15. (Ald.) Mehe. 16. Karamelu. 18. Marokoko hiria. 19. Benetako ez dena adierazten du. 20. EE.BB.ko saski-baloi liga.

Bertikalak 1. Umontzi, eme ugaztunen organoa. 2. Objetuak detektatzeko tresna. 3. Dardara egin. 4. Idi hitz elkartuetan. 5. Nafarroako ibilgailuetan. 6. Bete. 7. (Ald.) Sei petaloko lore handiak ditu. 9. (Ald.) Lasaitu. 13. Zoli. 14. Ezer ez. 17. Bela, iraultzaile hungariarra.

• HOROSKOPOA •

Aries Gauetan begiak zabal-zabalik izaten dituzu. Hontza dirudizu.

Taurus Zelako turboa daukazun hitzegiten hasten zarenean. Lanerako ere izango bazenu...

Gemini Gaur kalean zoazela jausi egingo zara. Kontuz ibili!

Cancer Jendaurrean hitzegitea gus-tatzen zaizu baina oraindik baduzu zer ikasia.

Leo Irakasleek begiz jo zaituzte. Hori bai injustizia!

Virgo Zein garrantzitsua den bizi-tzan ondo lagunduta izatea, ezta?

Libra Irrintzi txapelketan parte har-tu behar duzula zabaldu da herrian.

Scorpio Hori tripa bota duzuna! Sasoian zaudenik ezin ukatu.

Sagitaris Amorratuta jaikitzen zarenez, kamamilla gosaltzea gomen-datuko nizuke.

Capricorn Crema berezi bat ero-si aurpegiko zimurrak kentzeko.

Aquarius Laster Aste Santua. Be-randu barik hasi nora joan pentsatzen.

Piscis Negargarria da zure poltsi-koek bizi duten krisi egoera.

Etxe-Aundi



Zuen ezkontza gurekin ospatzen baduzue,

**EZKONTZAKO
CAVA GURE
KONTU**

Anno de Codornis


Andregaiak, galdetze hutsagatik, oparia jasoko du

ZUEK ESAN PREZIOA ETA GUK MENUA

Tfnoak: 78 19 56 / 78 32 90

TELEBISTAREN TXOKOA

Martxoak 15: "Alkatearekin Berbetan" saio berezia ATBn



Udal hauteskundeak gertu daudela eta, datorren asteazkenean Xabier Zubizarreta mintzatuko da "Alkatearekin Berbetan" ATBko saio berezian. Mikel Irizarrek zuzendu eta aurkeztuko duen programa interesgarri horretan, Xabierrek alkate izan den urte hauetan egindako lanari errepaso eman eta datozen hauteskudeen inguruan hitz egingo du. ATBko telefonoa zabalik egongo da programan zehar alkateari galderarik egin nahi dioten ikus-entzuleentzat. Horrez gain, kalean herritarrei egindako inkestak ere eskainiko dira programan. Saio interesgarri hau asteazkenean 9.30etan izango da eta ostegunean eguerdiko 13.30etan errepikatuko da.

PROGRAMAZIOA

**12 Igandea**

21.30etan
Mondragol. Itxaro
Zubillagak aurkeztua.

13 astelehena

20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
Mondrasport

14 Asteartea

13.30etan
Mondrasport (errep.)
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
ATBketan

15 Asteazkena

13.30etan
ATBketan (errep.)
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
"Alkatearekin berbetan"
(Ikus ezkerreko argazkia eta testua)


16 Osteguna

13.30etan
"Alkatearekin berbetan"
(errep.)
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
"Trebelanak"

17 Ostirala

13.30etan
Trebelanak (errep.)
19.15etan
Marrazki Bizidunak
19.50etan
Kukaratxa Motel
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
Astebete
22.00etan
Marrazki Bizidunak

KOMIKIA



Etxe-Bundi

1. PLATERA

Txibito eta perretxiko entsalada
Frijitu aukeratuak

2. PLATERA

Haragia edo arraina

POSTREA

Etxe gozoteria

ARDOA

Etxe ardo gorria eta beltza

Kafea

Guztira 2.500 pta. (B.E.Z. barne)

Monte taberna

Maalako arrabala, 11
Tfnoa: 79 20 56

SOLUZIOAK

Horizontalak: 1. Urbina, 8. Maita-
sun, 10. EDB, 11. Oie, 12. Tarot, 15.
Me, 16. Orazukre, 18. Tetuan, 19.
Izxxn, 20. NBA.
Bertikalak: 1. Umotoki, 2. Radar,
3. Bibratu, 4. It, 5. Na, 6. Ase, Ane-
mona, 9. Baretu, 13. Ozen, 14. Tul,
Kun.
Jeroglifkoa:
Mikelxo.

Etxebizitzak

- **Nesken etxebizitza bat osatzeko bi pertsona behar dira.** Tfnoa: 79 11 85.
- **Etxebizitza salgai Uriburu kalean.** 3 logela, komuna, sukaldea, egongela berogailu indibiduala, garaje opzionala. Tfnoa: 79 39 91
- **Bi oheko gela alokagai.** Tfnoa: 79 07 73.
- **Nesken etxe batean logela alokatzen da.** Tfnoa: 81 22 06. Saioa.
- **Pisu bat alokatzen da Erdiko kalean.** Tfnoak: 79 18 03 / 77 03 38.
- **Pertsona bat behar da pisua osatzeko, Grosen, Donostian.** Tfnoa: 29 11 10. Jontxu.
- **Nesken pisu batean pertsona bat behar da.** Tfnoa: 77 06 25.
- **Etxebizitza alokatzen da Garibai kaleko 16. zkan.** Prezio interesgarria. Tfnoa: 79 77 86.

Lana

- **Gaisoak zaindu edo etxeko lanak egiteko prest.** Tfnoa: 79 88 40.
- **Aizu, neska.** Denda batean lan egin nahi baduzu, bidali zure datuak 259 posta kutxatilara (Arrasate).
- **Umeak edo adineko pertsonak zainduko nituzke.** Tfnoa: 79 23 54.
- **Esperientziadun emakumea, prest garbitasun lanak eta etxeko lanak egiteko.** Tfnoa: 79 15 19. Informaek eskuragarri.
- **Andra bat etxeko lanak egiteko prest.** Orduka Tfnoa: 77 10 20. Nati.
- **Neska esperientziaduna umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko prest..** Tfnoa: 79 77 94.

- **Andra erizain auxilierra eta esperientziadun gerokultora pertsona nagusiak zaintzeko prest.** Tfnoa: 79 34 53.
- **Emakume euskalduna umeak zaindu edo intrina lan egiteko prest.** Tfnoa: 79 07 73.
- **Neska bat OHoko klaseak emateko prest dago.** Euskaraz edo erderaz. Tfnoa: 79 25 09.
- **Neska esperientziaduna umea zaintzeko eta garbitasunak egiteko prest.** Tfnoa: 77 14 21. Usoa
- **Lanak makinaz nahiz ordenadorez pasatzen ditut.** Interesatuak 79 36 63 tfnora deitu eta Arantxirengatik galdetu.
- **Emakumea pertsona nagusiak zaintzeko edota etxeko garbiketarako egiteko prest.** Harremantjarajko dei egin 79 79 87 tfnora. (Isi Mella-do).
- **Andra bat eskaintzen da arratsalde edo aste-bukaeretan pertsona nagusiak zaintzeko.** Tfnoa: 77 04 60.
- **Informatikako klaseak ematen dira.** Arrasaten, Aretxabaletan eta Eskoriatzan. Tfnoa: 77 02 59. Iker.
- **Magisteritza bukatua dut eta klase partikularrak emango nizkie OHO ikasleei.** Interesatzen bazaizu deitu 79 94 04 tfnora. Marijo.
- **Neska umeak zaintzeko neska prest.** Tfnoa: 79 90 04. M^a Jose.
- **Umeak edo pertsona nagusiak zainduko nituzke.** Tfnoa: 79 39 15.

Salerosketak

- **100 litroko FAGOR termoa saltzen dut prezio onean.** Tfnoa: 79 07 73.
- **FORD ESCORT XB3i-a salgai.** (SS-AC). Tfnoa: 71 43 31.

- **Garaje itxia alokatzen da, Larrea aldean.** Tfnoa: 79 69 41. Julia.
- **10 litroko FAGOR kalentadorea salgai, ia berria.** 13.000 pta. Berogailu japoniarra, handia eta berria, 35.000 pta. Tfnoa: 77 01 64.
- **FORD FIESTA 1.100 Trip salgai.** SS-AB. Ondo zaindua eta prezio onean. Tfnoa: 76 46 80. Gaeuz deitu. Anabel.
- **Roneoko etxeetan garajea alokagai.** Tfnoa: 79 36 39.
- **Garajea alokagai Uriburu auzoan.** Tfnoa: 79 90 30
- **RENAULT 4-a salgai. 50.000 pta.** Matrikula: SS-T. Tfnoa: 79 58 82 (astebukaeretan).
- **Bigarren eskuko altzariak salgai.** Tfnoak: 79 23 97 / 79 52 80.
- **Kanping edo karro erremolkea salgai.** Tfnoa: 79 00 99.
- **Renault 14-a salgai.** 50.000 pta. SS-P. Tfnoa: 79 58 82.
- **Bi garaje plaza alokatzen dira.** Tfnoa: 79 82 95. Amaia. Arratsaldean.
- **BMW K-75-S salgai.** SS-AK matrikula. 27.000 km. Berria eta prezio onean. Tfnoa: 77 04 21.
- **Motorra salgai.** BMW K75 - S. Matrikula: SS-AK. 27.000 km. ditu. Berria eta merkea. Tfnoa: 77 04 21.
- **Siberiar huski zakur kumeak salgai.** Begi urdindunak. Oso merke. 35.000 pta. Tfnoa: 79 57 03.

Denetarik

Motxila bat aurkitu dut Santa Barbara parkean, ahateen aintziraren ondoan. A. G. inzialak daramatza, eta barruan ume baten kuia-derno eta margoak dauzka. Tfnoa: 79 26 02.

Aste Gazte

Bekak

• Oñatiko Soziologia Jurdiko Instituto Internazionalak "Renato Treves" bekak deitzen ditu, bai masterra bai doktoregoa egiteko. Soziologia eta Zuzenbide ikasketak dutenei zuzenduta. Epea: maiatzak 30.

• Kanpo-arazoetarako Ministeritzak frantsesa edo ingelesa menderatzen duten lizenziatuei zuzendurik, beka hauek deitu ditu, Luxenburgoburutzeko. a) 95-96 ikasturte akademikoan zehar, ikasketak sakontzeko bekak; b) Musika, artea, zuzenbidea, ekonomia,

zientzia politikoak eta soziologiako ikastaroak uda partean egiteko bekak. Epea: martxoak 24.

Lana

- Azkoitiko Udalak, liburutegiko arduradun bat behar du. Epea: martxoak 18.
- Lasarte-Oriako Udalak, gizarte laguntzaile lanpostu baten deia egin du. Epea: martxoak 15.
- Nafarroako Foru Aldundiak, euskarazko itzultzaile-interpretatzaile bat behar du. Epea: martxoak 15.

Ikastaroak


- Euskal Dantzak, 15 urte-tik gorakoentzako. Martxoaren 24tik San Juanak arte. Ostirale-ko, 7etatik 8.30etara. Matrikula, 1.000 pta.
- Argazkigintza, Sakontze maila. Maiatzaren 8tik 25era. 7.15etatik 9.15etara. Matrikula, 3.500 pta/ 2.000 pta ikasle eta langabetuentzat.

Lehiaketak

• Erreterria Hiriko I bideo Lehiaketa. 16-30 urte bitarteko gazteek parte hartu ahal izango dute. Jatorrizko lanak VHS edo SVHS formatoan aurkeztuko dira gehienez 30 minutuko iraupena izanez. Epea: apirilak 12.

"Zahar honek artea fantasien joku bat dela dio. A zer nolako ergelkeria! Artea zure begietan txinpart disdiratsu zoragarri bat da, ene bihotzaren taupadekin biratu eta mirriak sortzen dituen."

**NAGUID MAHFUZ
"RADOBIS"**



**Informazio gehiago:
GAZTE ZERBITZUA
Tfnoa: 77 00 65**

ETXE MOBEL

MUEBLES ALTZARIAK

LOGELETAN espezializatutako merkatal zentrua
40 urteko esperientzia duten profesionalak sortu eta zuzendutakoa



Dena ETXEMOBELen.
Batetik, kalitate eta diseinurik handieneko logelak, garantia osoarekin.
Bestetik, logela merkeen artean,

BENETAN HARRIGARRIA!

Araba Etorbidea, 5 (ESKATU Pabilioia, San Andres auzoa) Tfnoa: 79 41 82 ARRASATE

ARRASATEKO IKASTETXE PUBLIKOEN ESKAINTZA: "D" ETA "MURGILTZE" EREDUAK

2 urtetik 18ra Irakaskuntza Publikoa, Euskalduna eta Dohainekoa

Arloak

- Esperientziak
- Matematika
- Ingelesa
- Soinketa
- Eskulanak
- Gizarte
- Euskara
- Gaztelera



LEHEN HEZKUNTZA

**MUSAKOLA, ERGUIN
ETA SAN ANDRESEN**

**Dohainik - 2 urtetik 18 urtera arte - Euskara - Jangela -
Gurasoekin harremanak - Eskolaz kanpoko ekintzak - Garraioa**

Errealitateak fikzioa gainditzen duenean.



Escort'95 berria.



Batzuetan errealitateak espektatiba guztiak gainditzen ditu. Baita Escort'95ak ere. Automobil klase berria. Oso estilo jakinekoa. Ibilian, fikziozko munduan zaudela usteko duzu bere ixiltasuna eta dardara eza direla eta. Baina errealitatea da. Suspentsio sistema berriak eta direkzio lagunduak, suabea eta arina egiten dute bidetan Escort berria.

Bere segurtasun sistema aktibo eta pasiboaz gain, gainera, lapurketen kontrako finkatzaile elektronikoko sistema berria. Escort berriak Zetek 16V. edo Turbodiesel motore aurreratuetan ditu eta aukera zabala 3, 4, 5 ate eta Nomade eta Cabrio modeloetan. Proba ezazu zure Banatzailean. Orduantxe ulertuko duzu errealitateak zergatik gainditzen duen fikzioa.



Ford
Segurtasuna
Denontzat

Informazioa eta aprobak 900 51 51 51 tfnoan

